



EUSKAL HERRITIK KANPORA

1990eko hamarkada amaieran Euskal Herria erreferentzia garrantzitsua zen demoeszena-mugimenduaren barruan. Aurreko kapituluan ikusi dugun bezala, Euskal Party-aren tankerako topaketei esker ezagutza teknologiko handiko gazteen haztegia bihurtu zen Euskal Herria, baina bideo-jokoen industria sendorik ez zeukanez eta erakundeek babesik ematen ez zutenez, jende talentudunak kanpora jo zuen.

Hasiera batera Madrilerako bidea hartu zuen erromesaldi hark: han zeuden garaiko bideo-joko enpresa garrantzitsuenak, eta beren gaitasunak erakusteko irrikatan zeuden euskal gazte haietzako erakargunea bihurtu zen Madril. Urteek aurrera egin ahala, Espainiako beste hiri batzuek hartuko zuten Madrilek hasiera batean izandako pisu handia. Euskaldun batzuek, gainera, Espainiatik haratago joatea erabaki zuten, bideo-jokoen mundu-mailako ekoizpen handietan beren arrastoa uzteko.

Jon Beltrán de Heredia programatzailea izan zen haietako bat. Irunen sortua, 1973ko azaroaren 23an, Tolosan eman zuen haurtzaroa, eta Gasteizen nerabezaroa. Ordenagailuen eta bideo-jokoen mundu liluragarria adiskide baten aita arkitektoak zeukan Olivetti P-6040¹ baten bidez hurbildu zen lehenbiziko aldiz. «Hamar karaktereko pantaila bat eta kutxa erregistratzaileetako bezalako paper-zinta bat zeuzkan, eta Basic-en programatzen zen».

1980ko hamarkada erdialdean, Inves Spectrum+² bat eskuratzea erabaki zuen Beltrán de Herediak eta, bere belaunaldiko beste gazte asko bezala, programatzeari ekin zion, *MicroHobby* eta *Micromanía* bezalako aldizkarietara esker. Gasteiztarrek gogoratzen duenez, «oso zaila» zen informazioa eskuratzea. Bazeuden programazio-liburuak, baina

1. Olivetti P-6040ri buruzko xehetasun gehiago: <http://www.old-computers.com/museum/computer.asp?st=1&c=836> [Kontsulta: 2015eko azaroaren 22a]

2. «Sinclair-en ZX Spectrumaren oso oso antzekoa zen, "ñ" tekla zeukala kenduta. Horretarako, traolaren tekla kendua zioten, baina, makina-kodean programatzeko, traola ezinbestekoa zen zenbaki hamaseitarrak sartu nahi izanez gero». <http://zonadepruebas.org/backup/modules/smartsection/item.php?itemid=905> [Kontsulta: 2015eko azaroaren 22a]

«garestiak ziren», eta, beraz, garai hartako aldizkari espezializatuak «ezagutza hura eskuratzeko bide merkeetako bat» bihurtu ziren. Horrela murgildu zen Basic lengoaian eta, geroago, makina-kodean.

Beltrán de Heredia oraindik adingabea zela, SPRI taldeak IMI⁵ zentro bat ireki zuen Gasteizko Florida parkean, eta lehenbiziko IBM PCak erabiltzeko aukera emanaz. Nortasun-agiria faltsutu egin zuen, zentroan sartu eta ordenagailu haiek erabiltzen ikasteko. Handik denbora batera, ordenagailu bat erosi zuen etxerako «aurreztua zeukanarekin eta gurasoen laguntzarekin». 8 bit-ekin ikasitakoari esker, jokoei «barrenak ateratzen» hasi zen, nola eginda zeuden ikusteko.

«*Xenon 2 Megablastekin* (The Assembly Line/Bitmap Brothers, 1989) gogoratzen naiz.. Makina-kodearekin idatzita zegoen *debugger*⁴ batekin desmuntatu nuen. Teklatua nola irakurtzen zuen eta talka eta kolpeen errutinak nola eginda zeuden ikasi nuen horrela», azaltzen digu gasteiztarrek. «*Indiana Jones y la última cruzada* (Lucasfilm Games, 1989) ere desmuntatu nuen –jarraitzen du–, baina ez guztiz. Joko hori zailagoa izan zen, ez zegoelako programatuta ez C lengoaian ez Pascalen. Handik urte batzuetara SCUMM⁵ motor bat erabiltzen zuela jakin nuen».

1991n UBI amaitu eta gero, Telekomunikazioak ikasten hasi zen Jon Beltrán de Heredia, EHU⁶, eta Internet hasi berri baten ateak zabaldu zizkion unibertsitateak. BBSen eta FidoNET sarearen bidez, ProASM_e taldera konektatu ohi zen. Mihiztatzaile-programazioan eta R34.Demos-en oinarritutako talde hartan bideo-jokoez eta demoeszenaz jarduten zuten.

3. Industrian Mikroelektronika Txertatzeko Programa (IMI) martxan jarri eta gero sortutako zentroak [http://www.politicaindustrialvasca.net/pigv%5Cpoliticaindustrial_es.nsf/vwPrototipoVistas/1FCB10E664A90C85C1256E92005450F8/\\$File/1%20IMI_v3.pdf?OpenElement](http://www.politicaindustrialvasca.net/pigv%5Cpoliticaindustrial_es.nsf/vwPrototipoVistas/1FCB10E664A90C85C1256E92005450F8/$File/1%20IMI_v3.pdf?OpenElement) [PDF] [Kontsulta: 2015eko azaroaren 22a]

4. Araztaile bat (ingelesez, *debugger*) beste programa batzuk probatu eta dauzkaten erroreak arazteko (ezabatzeko) erabiltzen den programa bat da.

5. Lucasfilm Games/LucasArts bideo-joko konpainiak bere abentura grafikoak garatzeko erabiltzen zuen programa.

6. Ikasketak 1991ko irailean hasi zituen, baina ez zituen bukatu. «Laugarren eta bosgarren mailen artean gelditu nintzen».

«Demoen munduak eta jokoan munduak lotura estua zuten –azaltzen digu programatzaileak–, baina demoekin aritzea errazagoa zen, programatzaile batentzat errazagoa baitzen berak bakarrik efektu bat egitea bideo-joko bat egitea baino».

Talde haietan bere kasako beste zale batzuk ezagutu zituen, eta handik denbora batera haietako batzuk aurrez aurre ezagutzera iritsi zen. Aitor Garay arrasatearra, Luis Crespo katalana eta Javier eta Juan Carlos Arévalo madrildarrak izan ziren haietako batzuk. Azken biek Iguana izeneko demoeszena-taldea sortu zuten, eta gasteiztarra ere talde horretan sartu zen, «Yann» ezizenarekin. Taldeak Euskal Party-aren hirugarren edizioan parte hartu zuen, eta han euskal eszenako beste kide batzuen aurpegiak ezagutzeko aukera izan zuen Beltrán de Herediak, urte batzuk geroago Pyro Studios-erako kontratatuko zituen Álex Camaño eta Ismael Raya, esate baterako.

Julio García «Yuio» (Gasteiz, 1979) dugu Interneten eta programazioari eta demoei buruzko IRC kanaletan ibiltzen zen beste euskaldun bat. Bere kasa ikasitako gazte honek MSX VG-8020 batekin eta MSXak zekarren jarraibide-liburuarekin eman zituen bere lehen urratsak, liburuak «Basic-i buruzko azalpenak baitzekartzan». 1980ko hamarkada amaieran katekesirako bidean Rivas Informática⁷ dendako erakusleihoan ikusten zuen Amiga 500 ordenagailua eros ziezaziotela lortu zuen. «Negar eta negar egin behar izan nuen, gurasoek oparitu ziezadaten. 105.000 pezeta (631 euro) ordaindu zituzten», goratzen du.

Garai hartan hasi zen García programazioarekin maitemintzen. «Izugarri gustatzen zitzaidan. Parrandan ateratzen nintzenean, goizeko hiruak baino lehen etxeratzen saiatzen nintzen, programatzen jarraitzeko».

Handik denbora batera, bere lehen PCa probatzeko aukera izan zuen. «Anaiak Pentium 133 Mhz bat erosi zuen, soinu-txartelarekin eta SVGArekin, eta ordenagailua uzteko eskatzen nion etengabe». Jon Beltrán de Herediak idatzitako *Lenguaje ensamblador de los 80x86* (Anaya Multimedia, 1994) liburuarekin ikasi zuen programatzen, eta programa txiki batzuk egiten saiatu zen mihiztatze-lengoaian eta

7. Gasteizko Herrandarren kaleko 33an zegoen denda.

Pascalen, horiek baitziren gutxi gorabehera kontrolatzen zituenak. «Ezagutza mugatua neukan. Jendeak goi-mailako beste lengoia batzuk erabiltzen zituen, programatzeko C eta C++, adibidez».

Internet eta IRC-kanaletako programatzaileen komunitatea izan ziren Julio Garcíaren aholkulari onenak. «Gasteizen ez nuen ezagutzen programatzen zuen beste inor, baina IRCan pila bat zekien jendea zegoen, eta haiei zalantzak galdetzeko aukera zegoen. Unai Landa bilbotarra zen erabiltzaile haietako bat. «Harekin hitz eginda jakin nuen Jon Beltrán de Heredia nor zen, eta ni bezala Gasteizen bizi zela. Haren lana ezagutzen nuen eta, garai hartan, maisu bat zen niretzat», adierazten du.

Julio Garcíak adorea bildu eta mezu elektronikoko bat bidali zion, harekin elkartzeko. Hitzordu hartara Raúl Ramos⁸ eta Iker Jamardo gasteiztarrak ere gonbidatu zituen Beltrán de Herediak. Victoria Caféko topaketa hura inflexio-puntua izan zen Garcíarentzat. «Egun hark dena aldatu zuen», aitortzen du.

«John Carmack⁹ ezagutzea bezalakoa izan zen niretzat. Nire bizitza osoan gehien ikasi nuen egunetako bat izan zen. Guztiz liluratuta nengo, Jonek nik baino askoz gauza gehiago baitzekien. C++ lengoian jardutera bultzatu ninduen eta horregatik hasi nintzen objektuetara bideratutako programazioa egiten».

Beltrán de Heredia: aitzindaria

Arévalo anaiekin zeukan harreman onari esker, Noria Works¹⁰ bideo-joko estudioarekin kolaboratzen hasi zen Beltrán de Heredia Gasteizetik bertatik. Unai Landa ere han zebilen. *Speed Haste* arrakastatsua

8. MetroSoft-en lan egiten zuen Raúl Ramosek, Jon Beltrán de Herediak 1994ko ekainean sortutako enpresa. Hasiera batean sukaldeak diseinatzeke CAD-softwarea sortzeko eratu zen enpresa, baina azkenean kirol-denden kateak kudeatzeko softwarea garatzen aritu zen.

9. AEBetako programatzailea, id Software-ren sortzailea eta *Wolfstein 3D*, *Doom* eta *Quake* jokoen arduraduna.

10. Alejandro Luengok eta César Valenciak 1990eko hamarkada hasieran sortutako estudioa.

ondoren, *Headhunter*¹¹ izeneko proiektua abiatu berri zuten madrildarrek, eta Guillermo Tostónek, Gonzalo Suárez «Gonzo»k, Diego Sorianok eta Beltrán de Herediak haiekin bat egin zuten. Arvirago Software¹² marka berria sortu zuten denen artean.

1996ko urte hartan bertan, Ignacio Pérez Dolset eta Javier Pérez Dolset anaiek Madrilgo Paradise Interactive Software¹³ konpainiako akzioen kontrola eskuratu, eta Contenidos Interactivos¹⁴ bihurtu zuten. Bideo-jokoaren superproduktzio bat egitea zen haien helburua. Lider bat behar zuten, ordea, asmo handi hura gauzatzen asmatuko zuen norbait, eta «Gonzo» Suárezengana jo zuten horretarako.

Hasiera batean, *Goody* eta *Sol Negro* (Opera Soft, 1988) jokoen sortzailea enpresa berrian eta Arviragon aritu zen, aldi berean, baina *Headhunter* proiekturako *publisherrik* ezaren ondorioz enpresa itxi behar izan zutenean, Contenidos Interactivosen bideo-joko berrian murgildu ahal izan zuen buru-belarri: II. Mundu Gerran oinarritutako *Commandos: Behind enemy lines (Commandos)* zen joko hura.

11. Xehetasun gehiago: <http://www.iguanademos.com/Jare/Archives.php?view=Headhunter> [on line] [Kontsulta: 2015eko azaroaren 23a]

12. «Enpresako akziodun minoritarioa nintzen ni», zehazten du Jon Beltrán de Herediak.

13. Paradise Interactive Software enpresa 1995eko maiatzaren 26n sortu zuten Alberto Blancok, Julián Alarcónek eta Ignacio eta Javier Pérez Dolset anaiek. Multimedia produktuak eta bideo-joko txikiak garatzen zituen. Madrilgo Velázquez kaleko 10ean zeukan helbide fiskala. «Nik dakidala, Pérez Dolset familiarena zen Paradisen %90 baino gehiago. Lehenago Proein SA banatzailea izan zuten, Teleline saldu zioten Telefonicari eta Davidoffen produktuak banatzen zituzten Espainiak», azaltzen du Beltrán de Herediak.

Bestalde, César Astudillo «Gominolas» garatzaileak Paraderen zenbait proiektutan parte hartu zuen, azkenerako argitaratu ez zen enpresa-simulagailu batean, *Computer Gaming World* aldizkariaren Espainiako edizioan banatu ziren *Time Passenger* abentura grafikoetan, Espainiako Gerra Zibilari buruzko CD-ROM batean, eta Teleline eta Snell enpresentzako multimedia proiektuetan, esate baterako.

14. César Astudillok uste duenez, Pérez Dolset anaiek «Alberto Blancori saldu zioten Paradisen zeuzkaten akzioak prezio sinboliko batean, eta enpresa berrira —Contenidos Interactivos— aldatu ziren aktibo guztiak eta langile guztiak». «Hura izan zen erabilitako formula sozietarioa», dio, nahiz eta ez egon guztiz ziur.

Hain zen handia proiektua, «Gonzo» Suárez konfiantzazko jende arituaz inguratu baitzen hasiera–hasieratik. Lehenik eta behin, Arviragoko lankideengana jo zuen *Commandosen* aurreprodukzioan laguntzeko. Hasiera batean Beltrán de Herediak ez zuen proiektuarekin bat egin, unibertitate–ikasketak amaitzea baitzen haren lehentasun nagusia.

Javier Arévalok ezagutzen zuen gasteiztarraren talentua eta bideo–jokoak garatzeko zeukan interesa. Beraz, hura limurtzeko asmoz, Contenidos Interactivosen Madrilgo bulegora gonbidatu zuen gaztea. «Hamar bat programatzaile zeuden han, joko bat egiten saiatzen», gogoratzen du Beltrán de Herediak. «Iturburu–kodea nahaspilatu samarra zegoen eta Javier Arévalok CD batean grabatu zidan, nik dezente hobeto programatu nezakeela uste baitzuen».

Gasteizera itzultzean, berehala ekin zion lanari. Fisiken eta adimen artifizialeko errutina bat garatu zuen, arerioei poligono–mapa batean askatasunez mugitzen uzten ziena. «Bide–bilatzailea hobetuz joan nintzen pixkana–pixkana¹⁵, eta azkenean Vicente Ribes programatzaileak nik garatutakoa jarri zuen *Commandosen* motorean».

Joko horretaz gain, Contenidos Interactivosek beste bi proiektu zeuzkan esku artean. *Cimmeria* izenekoa Konan barbaroaren munduan¹⁶ zegoen oinarrituta, eta Unai Landa programatzaile bizkaitarrak egindako motor bat zeukan. Beltrán de Herediak azaltzen duenez, «hasiera batean ez zegoen jokorik ez ezer, baina *tech demoa* oso aurreratua zen grafikoki»¹⁷. Bigarrena pirata–joko bat zen, *Heart of Stone* izena jarri ziotena azkenean. «Oso onak ziren jokoaren diseinu–dokumentua, joko–dokumentua eta grafikoak».

15. «Bide–bilatzailea Arévalo anaiekin lankidetzan egiten ari nintzen proiektu baten barruan garatu nuen», zehazten du Beltrán de Herediak.

16. Robert E. Howard idazleak 1932an sortutako fikziozko pertsonaia.

17. «3Dko zelaiak garai hartan xehetasun gehiago ematen zen teknika batekin –2D eskalatuak *spriteak* gainjartzea– nahasten zituen software–motor bat zen», Julio García, «Yuio»k azaltzen duenez. García *Cimmeriako* taldean sartu zen 1998 urte hasieran, eta alderdi grafikoaz arduratzen zen Igor Ruiz «Konstandin»ekin egokitu zen han. Unai Landak *Cimmeriako* 3Dko lehen motoreari buruzko xehetasun gehiago ematen ditu: «*Commandoseko* motoreko modulu bat zen», eta, beraz, adimen artifiziala eta *gameplaya* partekatzen zituzten.

1997ko lehen erdian, Pérez Dolset anaiek eta «Gonzo» Suárezek Erresuma Batura joatea erabaki zuten, beren hiru jokoetarako *publisher* bila. Gauza batzuk ebatzi gabe zeuden, halere, eta Gasteizko programatzaile iaioaren laguntza behar izan zuten berriro ere. «Esan zidaten Ingalaterrara joatekoak zirela handik hiru astera, eta prototipoak prest eduki behar zituztela han aurkezteko. *Commandos* taldearekin bat egitea eskaini zidaten, beraz, eta Madrilera joan nintzen». «Bi aste eman nituen hamasei ordu lan eginez egunero», eransten du. Lan pila bat egin arren, «prototipoak huts dezente zeuzkan». «Aurretik finkatutako gauzak eginda funtzionatzen zuen bakarrik, baina oso erakargarria zen».

Erresuma Batuan zeudela, «Gonzo» Suárez eta Pérez Dolset anaiek hainbat enpresarekin elkartu ziren, finantzazioa lortzeko. *Commandoserako* laguntza baino ez zuten lortu. Eidos Interactive eta haren arduradun nagusi izandako lan Livingstone, bereziki, izan ziren haien babesle nagusiak. Kontratua sinatuta eta jokorako aurrekontua ia guztiz adostuta zeuzkatela¹⁸, *Contenidos Interactivos* joko-garatzailerak Pyro Studios¹⁹ bihurtu zuten Pérez Dolset anaiek.

Bien bitartean, Jon Beltrán de Heredia etxera itzulia zen «pozez txoratzen». Madrilen eman zituen aurreko bi asteetan gutxi-gutxi lo egin bazuen ere, esperientzia hura zoragarria izan zen beretzat. «Gauzak antolatu eta gurasoei esan behar izan nien Madrilera nindoala bizitzera. Uztaila hasieran izan zen. Oso gogoan dut, bi aste neramatzalako han, Miguel Ángel Blanco²⁰ hil zutenean».

18. Lehen *Commandos*ak 150 milioi pezetako inbertsioa eskuratu zuen (900.000 euro). «Pyro Studios: Diez años de éxitos» [on line] <http://www.elmundo.es/navegante/2006/03/16/empresas/1142525491.html> [Kontsulta: 2015eko azaroaren 23a]

19. Mora, Pedro Javier. «La historia de Pyro Studios». 118-134. or. *Retro Maniac*, 9. zk. (2014ko uztaila)

20. Dokumentazioa. «Secuestro de Miguel Ángel Blanco: 48 horas que conmovieron España». *La Vanguardia*. (2012ko uztailaren 10a) <http://www.lavanguardia.com/hemeroteca/20120710/54322308881/eta-secuestro-asesinatos-concejales-pp-miguel-angel-blanco.html> [on line] [Kontsulta: 2015eko azaroaren 23a]

Pyro Studiosen hilabete eman eta gero, haren lagun Javier Arévalok AEBetara joatea erabaki zuen, High Voltage²¹ bideo-joko enpresan aritzera. Bat-batean programatzaile-bururik gabe gelditu zen «Gonzo» Suárez, eta bere gertuko laguntzailea izatea eskaini zion orduan gure gasteiztarrari.

Euskaldunen inbasioa

Eidos britainiarren laguntza ekonomikoari esker *Commandosen* garapenak sekulako bultzada hartu zuen, eta zuzendaritzak jende berria kontratatu behar izan zuen. Hasieran, *demoparty*etan beren gaitasun eta ezagutzak erakutsiak zituzten gazteak erakarri nahi izan zituzten, Asier Hernáez²² bilbotarra, *Commandoseko* lan-taldeko artista grafiko gisa arituko zena, eta Álex Camaño programatzailea izan ziren haietako batzuk.

Jon Beltrán de Heredia PCrako estrategia-jokoaren programazio-buruak azaltzen duenez, Pyro Studiosen «jendea biltzen joan ginen, programatzaileak eta artistak, eta azkenean hemezortzi laguneko taldea osatu genuen, amesgaizto baten moduko urte eta erdi iraun zuen garapen baterako».

Bilboko La Casilla kirol-pabiloitik gertu bizi zen programatzaile mukizu bat zen Camaño. Bere belaunaldiko gainerako gazteen antzeko bideari jarraiki murgildu zen informatikan. ZX Spectrum-ak, aldizkari espezializatuek eta *Sir Fred* (Made in Spain, 1985), *Abu Simbel Profanation* (Dinamic, 1985) edota *Exolon* (Hewson, 1987) moduko izenburuek joko haien garapenarekiko jakin-mina sortzerainoko lilura eragin zioten bilbotarrari. Handik urte batzuetara, Amiga 500 erabiltzen hasi eta Goblins izeneko demoeszena-taldean sartu zenean, aukeraz betetako unibertso bat zabaldu zitzaion.

21. Javier Arévalok berak azaltzen du AEBetara joatea erabaki zuela *Headhunter* proiektua itxi zenean. «*Commandosen* aritu nintzen hilabete batzuetan, nora joan erabaki eta bisa egin bitartean».

22. Gómez, Iratxe. «Asier Hernáez: Mi jefe ahora es George Lucas. Es un tío muy majo». *El Correo*. 2012ko otsailaren 12a. <http://www.elcorreo.com/vizcaya/v/20120212/vizcaya/asier-hernaiez-jefe-ahora-20120212.html> [Online] [Kontsulta: 2015eko azaroaren 23a]

Haren auzokide Unai Landaren errua izan zen Camaño *Commandos* taldean sartu izana. Álex Camaño programatzailea Abra Animation marrazki bizidunen estudioan zebilen lanean garai hartan. «Teknika tradizionalekin aritzen ziren betiko animatzaileak ordenagailuak erabiltzera bultzatzea zen nire lana. Horretarako, irudiak, kolorea edota marrazkiak grabatzeko modua hobetzen lagunduko zien softwarea egiten nuen nik», diosku bilbotarrak.

Landak orduan aipatu zion Pyro Studioseko lan-eskaintza²³ Camañori. «Gogoan dut beren artean borrokatzen ziren robot batzuen adimen artifiziala egiten ari zela Unai. Hasiera batean ez nekien seguru zer egin nahi nuen. Iruditzen zitzaidan Madrilen egiten ari nintzen jokoak ez zirela oso sendoak, edo adiskideentzako modukoak zirela bakarrik».

Jon Beltrán de Heredia eta «Gonzo» Suárez Euskal Party-aren edizio batera egindako bisita batek zeharo aldarazi zuen gure gaztearen ustea. «Unaik aurkeztu zizkidan, eta nik egindakoa ikusten egon ziren. Azkenean, Madrilera joatea proposatu zidaten, haiekin lan egitera, eta horixe egin nuen, nahiz eta Bilbon ederki asko egon garai hartan». Álex Camaño 1997an hasi zen lanean Pyro Studiosen. 23 urte zeuzkan.

Beste euskaldun bati ere bota zioten amua: Julio Garcíari. Beltrán de Heredia gasteiztarra *Commandoseko* programatzaile-buru izateari utziz geroztik kointziditu gabeak ziren. Egun batean, baina, berriz topatu ziren, Gasteizko Andre Zuriaren festetan, Aiztogile kalearen erdian. Berriketari ari zirela, zera bota zion Beltrán de Herediak bat-batean:

- Eta zergatik ez zara animatzen Madrilera etortzen?
- Lanik gabe? Nola utziko ditut, bada, ikasketak? —erantzun zion Juliok, ikasteko grina galdua zuela eta egin nahi zuen bakarra programatzea zela bazekien arren.
- Zatoz Madrilera, eta proba batzuk egingo dizkizugu.
- Jon, baina zuek nire mailaren oso gainetik zaudete eta! —bota zuen Juliok aitzakia gisa.
- Zuk azkar ikasten duzu —erantzun zion *Commandoseko* taldekideak.

23. Unai Landak azaltzen duenez, Pyro Studiosen aurretik «Noria Worksen aritu nintzen ia urtebete, eta han robot-joko batean laguntzen hasi nintzen».

García hasiera batean luzamendutan ibili zen. «Ikaratu samarra nengoen», gogoratzen du. 1997ko udako gau hartan, gure programatzaile gaztea goizeko hiruretan iritsi zen etxera, Beltrán de Herediaren proposamena burutik kendu ezinik. «Anai gaztea esna zegoen oraindik eta gertatutakoa azaldu nion. Hark ikasten jarraitzeko aholkatu zidan, noski. Ez nion jaramonik egin. Ezta amari ere».

Gabonak baino egun batzuk lehenago, Julio García eta haren lagun Raúl Ramos –Beltrán de Heredia harekin mintzatua zen ere bai–, Madrilera joan ziren, «Gonzo» Suárezekin biltzera, eta lan-kontratu batekin atera ziren bilera hartatik. 1998ko urtarrilaren 6rako Madrilen zen Julio. Ramosek, berriz, nahiago izan zuen ikasketak bukatu arte itxoin, eta hilabete batzuk geroago hasi zen Pyro Studiosen.

Garcíaren lehen eguna ustekabez beteta egon zen. «Bulegora iristean, Velázquez kaleko 10.ean²⁴, *Cimmeria* proiektuan jarri ninduten lanean, nahiz eta berez *Commandosen* jarduteko aginduarekin kontratatu».

Ezusteko arrakasta

Hemezortzi hilabete lan eta lan aritu eta gero, dendetara iritsi zen *Commandos* ordenagailuetarako estrategia bideo-jokoa, 1998ko uztailean²⁵. Jon Beltrán de Herediak gogoratzen digunez, jokoa garatzen jardun zuten hemezortzi taldekideek «izugarritzko lana egin zuten». «Uste dut iganderen bat baino ez genuela libre izan». Jokoak 250.000 bat kode-lerro dauzka, C++ lengoian, eta grafikoak 2Dn diseinatuta daude, ez ohiko xehetasunekin, 3D txartel grafiko azeleratzaileek gero eta pisu handiagoa hartzen ari ziren garai batean.

Commandos arrakasta handia izan zen Pyro Studiosentzat, baina bereziki

24. Madrilgo Velázquez kaleko 10.eko bosgarren ezkerrean.

25. Beltrán de Herediaren esanetan, *Commandosen* garapen osoa hemezortzi hilabetez luzatu zen. Lehenbiziko seiak bera artean Gasteizen zela, Madrilgo estudioan lanean hasi gabea. Ignacio Pérez Dolsetek *El País*en egindako elkarrizketa batean esan zuenez, lehenbiziko *Commandosak* milioi bat dolar inguruko kostua izan zuen, eta hogeï lagun aritu ziren proiektu hartan, hemezortzi hilabetez. Fernández de Lis, Patricia. «Creador de videojuegos». *El País* (2006ko abuztuaren 12a). http://elpais.com/diario/2006/08/12/revistaverano/1155333606_850215.html [online] [Kontsulta: 2015eko azaroaren 23a]

Eidos Interactiverentzat. «Ezusteko handi samarra izan zen», aitortzen digu gasteiztarrak. «Lehenbiziko egunetan ez zen salmenta handirik egon, baina asterik aste salmentak ugarituz joan ziren pixkana-pixkana». Hiru hilabete eta erdian zehar Ingalaterran gehien saldutako espainiar bideo-jokoa izan zen, eta Europako merkatuetan gehien salduenetako bat. Horrez gain, jokorik salduena izan zen hamazazpi herrialdetan, eta 1,5 milioi kopia saldu zituen guztira.

*Commandos*en arrakastak iraultza txiki bat eragin zuen britainiarren artean, eta ordutik aurrera lehentasun osoa izango zuen saga bihurtzea erabaki zuten. Joko harekin lortutako oihartzuna aprobetxatu beharra zegoen irabazi gehiago eskuratzeko, eta saga bat ekoizteko eskatu zioten Pyro Studiosi: *Commandos: Más Allá del Deber*.

Proiektuan Euskal Herriko beste programatzaile bat aritu zen: Ismael Raya «Phornee», Goblins *demogroupe*ko kide ezagunenetako bat. «Pyro Studiosekoak etorri zitzaizkidan —«Gonzo» Suárez eta Jon Beltrán de Heredia— Euskal Party 6an (1998), bideo-jokoetan lan egitea pentsatua ote neukan galdetzera. Jon lehendik ezagutzen nuen, PCen demoeszenatik, eta harekin hitz eginda nengoen inoiz gure programazio-zaletasunei buruz».

- Madrilera bazatuz, azalduko dizugu baldintzak zein diren —gogoratzen du esan ziotela.

Bilbotar programatzailea Espainiako hiriburura joan zen 1998ko irailean. «Pyro Studiosen bulegoak pisu handi eta dotore batean zeuden. Hiruzpalau gela txiki zeuden, elkarren ondoan erdi pilatuta zeuden langilez beteta». Giroari dagokionez, Rayak gogoratzen duenez «giro ona» zen nagusi, nahiz eta «Gonzo» Suárezek zorrotzasun handiz gidatu lan-taldeak.

Goblinseko bere lagun Álex Camañorekin zeukan adiskidetasunak asko lagundu zion Madrilera egokitzen. «Lehen egunetan haren etxean egon nintzen bizitzen, baina handik pixka batera, pisu partekatu batera joan ginen».

Pérez Dolset anaien enpresan zeuzkan eginkizunak *Commandos: Más Allá del Deber mission packa* egitera mugatu ziren. «Ez neukan

leku finkorik eta ahal nuen guztian laguntzen aritzen nintzen». Rayak azaltzen duenez, «gauzatxo batzuk» programatu zituen, ibilgailuak adibidez, eta bi misiotan²⁶ adimen artifizialaren arduraduna izan zen, «eta elementu guztien jokamoldearena». Misio-sorta harekin, enpresan zailtzen joan zen gure bilbotarra. «Eskatzen zizkidaten lanak geroz eta garrantzitsuagoak ziren eta pare bat hilabeteren buruan errendimendu betearen nengo».

Unai Landarekin batera egokitu zen han. *Commandos 1*eko motor grafiko guztia berregiteaz arduratu zen Landa, misio-sortari gaueko misioak gehitu ahal izateko. «Egundoko lan gogorra izan zen», nabarmentzen du Landak.

PSXrako prototipoak egiten

Commandos: Más Allá del Deber garatzen ari ziren aldi berean, lehen *Commandos*aren PlayStation (PSX) kotsolarako prototipoa egiten hasi ziren Pyro Studiosen. Sony multinazional japoniarra lau urte lehenago kotsolen merkatuaren lehian sartu zela ikusi zuen Pyrosek, eta oso harrera ona ari zela jasotzen jokalarien aldetik. II. Mundu Gerrako jokoaren bertsio horrek bideo-kotsolen negozio korapilatsurako sarbidea eskain ziezaiekeen.

«Gonzo» Suárez izan zen prototipo haren bultzatzailea, PCko jokia PlayStationera egokitzea erraz-erraza izango zelakoan. Talde txiki bat osatu zuen, Álex Camañorekin, Javier Arévalok ikuskaritzapean²⁷. Bilbotar programatzaileak hilabeteak eman zituen azkenerako fruiturik eman ez zuen proiektu hartan.

«PlayStation 1 kotsola sendoa izan arren, 3Dko grafikoak darabiltzaten jokoaren garapenera bideratuta dago eta *Commandosek*, berriz, ezin

26. Bideo-jokoaren 6. eta 7. misioak ziren, «La gran evasión» eta «Nido de águilas» izenekoak.

27. *Microsoft's NBA Inside Drive 2000* jokia garatzen High Voltagen hamalau hilabetez jardun eta gero, Javier Arévalo Pyro Studiosera itzuli zen 1998ko urrian, *Cimmeriako* proiektu-zuzendari gisa, eta *Commandos 2*rako teknologia eta tresnen garapenerako zuzendari gisa geroago.

konta ahala *sprite*²⁸ zeuzkan», azaltzen du Camañok. «Esperimentu batzuk egin genituen, baina oztopo ugari topatu genituen. Jokoaren mapa kargatzea lortu genuen, eta posible zen jokoan aurrera egitea. Ibilgailu batzuk mugiarazi genituen, eta jokoaren logikaren puska bat ondo zebilen. Baina arazoak geneuzkan grafikoekin. Makinari asko kostatzen zitzaion, eta diskoa irakurtzen egon behar zuen etengabe».

Proiektua behin betiko baztertua izan baino lehentxeago, *Commandos 2: Men of courage*²⁹ (*Commandos 2*) jokoaren aurreproduzioari ekin zioten. «Gonzo»k bere taldean nahi zuen Arévalo, eta teknologia-buru izendatu zuen, beraz. Álex Camañoren hitzetan, Jon Beltrán de Herediak hartu zuen Arévalok PSXren prototipoaren ikuskapenean utzitako ardurak, baina berehala ikusi zuen proiektuak ez zeukala etorkizunik, orduan aurreikusita zegoen moduan. «PSXrako *Commandos* ezin zuen *port* bat izan», onartzen du. Beste zerbaitekin izan behar zuen, baina gai berberarekin, pertsonaia berberekin eta grafiko berberekin».

LORAREN ONDOREN, ANABASA

Commandos eta *Commandos: Más Allá del Deber* bideo-jokoek izandako oihartzun handiaren ondorioz ikusmin handia piztu zen bigarren zatia iragarri zenean. Eidos Interactivek bazekien produktu on-ona zeukatela esku artean, eta ia hasieratik babestu zuen Pyro Studios. Britainiarrek milioi bat ale saldu nahi zituzten *Commandos 2* merkaturatzen zen egunean bertan, zeramaten urte ezin txarrago hartako kontuak hobetzeko itxaropenez.

Beltrán de Herediak azaltzen duenez, Eidosen oso kezkatuta zeuden beren frankiziarik errentagarrienen salmenten bilakaera ikusita. «*Tomb Raider*ren lepotik bizi ziren hein handi batean, baina garai hartan ez zien espero adinako irabazirik ematen. Hortaz, *Commandos 2*k egoera konpontzen eta zerga-urtea positibo bukatzen lagunduko ziela uste zuten». Jokoa hemezortzi hilabeteko epean egiteko baldintza ezarri

28. 2Dko grafikoak.

29. Garapen osoak 1.000 milioi pezetatik (sei milioi euro) gorako kostua izan zuen eta Eidos Interactivek finantzatu zuen oso-osorik.

zuten, gainera. «Ezinezkoa zen epe hura betetzea», azaltzen du gasteiztarrek. Bestalde, ingelesek konpainiaren zati bat erosi zuten.

Presio horrek guztiak eragin handia izan zuen «Gonzo» Suárezek zuzendutako taldean eta jokoa garatzeko fase guztiak gaiztatu zituen. Lan-zama guztiz neurrigabea zen, Eidosek finkatutako denboran bukatzeko, baina epea betetzekotan ezinbestekoa zen langile gehiago kontratatzea. *Commandos 2* taldea oso azkar hasi zen: lehen zatiko hemezortzi lagunetatik berrogeitik gora izatera pasa ziren. Pérez Dolset anaiek bulego handiago bat bilatu behar izan zuten, eta Madrilgo Burgosko hiribidera aldatu ziren.

Baina taldea handitu aurretik berregituratu egin zituzten Pyro Studioseko barne-taldeak. Aldaketa horri jarraiki, *Commandos 2* garatzeko lanetan sei euskaldun aritu ziren, hasiera batean. Jon Beltrán de Herediak zuzendu zuen programatzaile-taldea³⁰ eta Ismael Raya bideo-jokoaren oinarriko arkitektura eta hezurdura lantzeaz arduratu zen. «Aplikazioaren egituraz arduratu nintzen, fisiken kudeaketaz, arerioen mugimenduen motoreez, bisten kudeaketaz... jokoaren muinaz, alegia. Ikusi ez, baina sumatzen denaz», zehazten du programatzaileak.

Motor grafikoa programatzen Unai Landa aritu zen; Álex Camaño garatu zuen adimen artifiziala eta *gameplaya*; eta Raúl Ramos arabarra *Praetorians*³¹ proiektuan aritzetik *Commandos*en bigarren zatiaren fisikez arduratzera igaro zen. Azkenik, beste euskaldun bat lotu zitzairen taldera: Michael Santorum, diseinu-sailean.

Barne-berrantolaketaren ondoren, demoeszenako harremanen bidez iritsi ziren kontratazio berrietako asko. *LOAD: Euskal bideo-jokoaren historia (1985-2009)* honen 6. kapituluan azaldu dugunez, Pyro Studioseko kideetako asko mundu horretatik zetozen. 1999, 2000 eta 2001eko edizioetan enpresa horretako ordezkariak Euskal Party-an izan ziren bideo-jokoaren garapenari buruzko hitzaldiak ematen eta gazte talentudunak kontratatzen.

30. «*Commandos 2*ko logika-arloa zuzentzen hasi nintzen, hau da, adimen artifiziala, erabiltzaile-interfazea, etab.».

31. 1998ko bigarren erdian, Igor Ruiz lantzen ari zen *Cimmeria* proiektuak *enginea* aldatu eta beste izen bat jarri zioten jokoari: *Praetorians* izango zen aurrerantzean.

Julio García euskal programatzaileak gogoratzen duenez, *Praetoriansen* lanean zebilela pare bat aldiz izan zen Party-an, bere lankide David Notario, Javier Fáfula eta Jorge Sánchezekin batera. «Euskal Party-a erreferentzia zen eta, bideo-jokoen garatzaileak hara joaten ziren beti jende bila». «Partyetara joatean bazenekien alor horietan espezializatutako jendea aurkituko zenuela han, kodea optimizatzen zekiten eta teknologiari buruzko ezagutzak zeuzkaten mutilak», dio.

Demopartyez haratago, Garcíaak azaltzen duenez, Pyro Studiosera etengabe iristen ziren unibertsitate-ikasketak amaitu berritako informatikari gazteak, baina «alde izugarria zegoen unibertsitatean ikasitakoaren eta joko bat egiteko moduaren artean», karreran «ez zelako grafikoetara edo adimen artifizialeko gaitara bideratutako programazioa irakasten».

2000. urte hasieran, Julio García *Praetorians* eta Pyro Studios uzteko adorea bildu, eta Rebel Act bideo-joko enpresara joatea erabaki zuen. *Blade: The Edge of Darkness* garatzen jardun zuen urtebetez, eta José Raluy bilbotar programatzailearekin bat egin zuen han. Jokoaren ekoizpena bukatu aurretik³², baina, Pérez Dolset anaiengana itzultzea erabaki zuen, *Commandos 2* egiten ari zen taldean aritzeko oraingo honetan.

Arerioen ikuspen-algoritmoa hobetzeaz arduratu zen, «baliabideen %33 irensten baitzuen», eta «%7ra murriztea lortu nuen». Geroago soldadu aliatuen adimen artifiziala eta logika lantzen zuen taldean aritu zen. «Zortzi hilabete baino ez nintzen egon han, baina hango lan-erritmoak eta tentsioak izugarrizko estresa eragiten zuten. Armadan egotea baino okerragoa zen», dio.

Bi urte luzeko garapenaren ondoren, jokoaren azken bertsioa konpilatu zuen Jon Beltrán de Herediak, 2001eko irailaren 7ko gaueko hamaiketari. Jokoa irailaren 21ean iritsi zen dendetara, hamaika hizkuntzatan (zazpi europarrak eta lau ekialdekoak), eta izugarrizko arrakasta izan zuen salmenta aldetik. Hala eta guztiz ere, Eidonetik jasotako presioek, Ignacio Pérez Dolseten eta «Gonzo» Suárezen arteko tirabirek eta jokoa

32. *Blade: The Edge of Darkness* bideo-jokoan «Yuio» García izenarekin agertzen da Julio García.

garatzean sortutako ondoezak enpresa uztera bultzatu zituzten Pyro Studioseko kide asko.

Commandos 2 kontsoletan

Commandos bideo-jokoaren bigarren zatiak egundoko arrakasta izan zuen jokalarien artean berriro ere, eta 63 milioi euro baino gehiago bildu zituen. *Commandos 1* PSXra egokitzeko saiakerak porrot egin bazuen ere, Pyro Studiosen berriro saiatu ziren jokoa PCTik PlayStation 2 (PS2) eta Xbox kontsoletara eramaten. Ia urtebete eman zuten ahalegin horretan. «Erronka ikaragarria izan zen, baina azkenean lortu genuen, PlayStation 2an bereziki. Amesgaizto tekniko bat izan zen, jokoa pospolo-kaxa handi batean sartzen saiatzea bezalakoa», dio Jon Beltrán de Herediak.

Sonyren kontsolaren mugak izan ziren arauak markatu zituztenak. Disko gogorrik gabe, DVD irakurgailu batekin eta 32 mega RAM memoriarekin, Beltrán de Herediak, Vicente Ribesek eta Raúl Herrerok osatutako taldeak gorriak ikusi zituen *Commandos 2*ren misioetako batzuek zeuzkaten 130 megak PS2an sartzeko. «Fitxategiak ia herenera murriztu behar izan nituen, 25 bat mega, sua exekutatzeko zuten fitxategiak bospasei mega hartzen baitzituen berak bakarrik».

«PS2an truku pila bat egin behar izan genituen programazioan. "Colditzeko gaztelua" bezalako misioetan ez zen eszenatoki osoa simulatzen, PCan bezala, baizik eta jokatzeko zeundeneko gela, beste komandoetako bat utzia zenuen eremua eta arerioen bideak, besterik ez». 10. misioan, berriz, «Paris sutan» izenekoan, «ezinezkoa zen mapa osoa simulatzea, baizik eta pantailan ikusten ziren puskak bakarrik».

Xbox-rako egokitzapena errazagoa izan zen, Microsoften kontsola «PC baten modukoa baitzen», gogoratzen du gasteiztarrak. Gainera, 64 mega RAM memoria zeuzkan, eta disko gogor bat. Jordi Ros teknologia-programatzailea izan zen azken bertsio horren arduradunetako bat.

Pyro Studiosen Dreamcasterako *port* bat ere egin zuten, baina, nahiz eta haren garapena oso aurreratuta egon, azkenean bertan behera gelditu zen. Segaren azken kontsolaren edukiera txikiagoa zen

Sonyren PS2arena baino, 16 mega RAM memoria, eta 1,2 GB arteko diskoak irakurtzen zituen GD-ROM³³ bat zeukan. Azken bertsio hori egiteko, «bi edo hiru garapen-kit» erabili ziren, Unai Landa bilbotarrak elkarrizketa batean esandakoaren arabera³⁴. Bera izan zen *Commandos 2* Dreamcastera eramaten laguntzeko arduradunetako bat³⁵. «Zenbait fase guztiz jokagarriak ziren. Arazoa mapa oso aurreratuetan zegoen, memoria asko hartzen baitzuten».

Jon Beltrán de Herediak berak eransten duenez, *Commandos 2* Asiara aurkeztera joan ziren bira batean, «Dreamcasteko bertsioa erakusten egon ginen». «Erakusteko moduko prototipo-mailan zegoen. Jokatzeko aukera ematen zuen, eta misioak amaitzekoa».

Bertsio horren garapena aurrera zihoan ttiriki-ttarraka, Eidos Interactive britainiarren babesarekin. 2001eko martxoaren 28an, prentsa-ohar bat bidali zuten hedabide espezializatuetara, Dreamcasteko bertsioak, SegaNet online-sistemaren bidez, bi jokalaria batera edo lehian aritzeko aukera eskainiko zuela iragartzeko. Era berean, jakinarazi zuten jokoa urte hartako maiatzaren 1ean jarriko zutela salgai, baina ez zen sekula halakorik gertatu. «Eidosek guztiz baztertu zuen Dreamcast, eta, azkenean, bertan behera gelditu zen³⁶», oroitzen du Landak.

Nintendo GameBoy Advance kontsola eramangarrirako ere prototipo bitxi eta ezezagun bat izan zuen *Commandos 2k*. 2002an garatu zen, Bilboko Toyonaka Studioseko garapen-taldearen eskutik. Manuel

33. Giga Disk Read-Only Memory-ren laburdura. Yamahak Sega bideo-joko konpainiarako garatu zuen eta Dreamcasten erabili zen disko optikoko formatua.

34. «Entrevista a Unai Landa, ex-empleado de Pyro Studios sobre *Commandos 2* Para DC». Dreamcast.es (2008ko urriaren 16a) http://www.dreamcast.es/articles.php?article_id=219 [online] [Kontsulta: 2015eko irailaren 8a]

35. «*Commandos 2* kontsoletarako optimizatzen egin nuen lan. Dreamcasten porta Raúl Herrero egin zuen, besteak beste», zehazten du Unai Landak.

36. Dreamcastek izandako salmenta txikien ondorioz kontsola hura babesteari uztea eta norabidea aldatzea erabaki zuen Segak eta orduan etorri zen Eidos Interactiveren erabakia. Segak ekoitzitako zazpigarren eta azken kontsola izan zen Dreamcast.

Pazos kantabriarrak egin zuen programazioa, eta alderdi grafikoa Pyro Studiosen ibilitako Igor Ruizek garatu zuen, Bit Managers konpainia katalanean lan egindako bi grafistarekin batera. Ramiro Arrarte de Laburu izan zen, azkenik, proiektu honetarako eta beste proiektu batzuetarako finantzazioa bilatzeaz arduratu zena.

Pazosek azaltzen duenez³⁷, ez zeukaten Pyro Studiosen lizentziarik, baina «haiei erakutsi eta proposatzeko egin genuen». Pérez Dolset anaiekin egindako bilerara Igor Ruiz eta Ramiro Arrarte de Laburu joan ziren. Azkenean ez ziren ados jarri, eta prototipoa garatu gabe gelditu zen.

***Praetorians* ixten**

Aldi berean, *Praetorians*en garapena bukatu nahian zebiltzan Pyro Studiosen. Sei urte paseak ziren bideo-jokoa pentsatu zutenetik, eta aldaketa ugari izan zituen orduz geroztik. Julio García programatzaileak gogoratzen duenez, bera 1998 hasieran enpresan sartu zenean, jokoak *Cimmeria* izena zeukan oraindik, eta hiru programatzailez eta lau grafistaz osatuta zegoen jokoaren garapen-taldea.

Unai Landak aurreneko garapen-faseetan sortutako motoreak eskuz esku pasatu zen, eta hondatu egin zen azkenerako. «Itxuragabekeria hutsa zen geneukana, eta ez zeukan konponbiderik», gogoratzen du Landak. Horrekin batera, garai hartan teknologia izugarri azkar ari zen garatzen, eta lana zaharkituta gelditu zen, «hardware bidezko eraldaketa eta argiztapena zekarten txartel grafiko azeleratzaile berriak iristean»³⁸ izandako astinaldiaren ondorioz. Aldaketa haiek ikusita, motoreak aldatu eta hutsetik hasi behar izan zuten. David Notario teknologia-arduradunak egin zuen *Praetorians*en motorearen diseinu berria, Unai Landak markatutako estiloari jarraiki.

37. Xehetasun gehiago: <http://elblogdemanu.com/entrevista-a-manuel-pazos-programador-y-figura-clave-de-la-escena-del-msx/>

38. Julio García dioenez, 3DFx/Glide txartelekin funtzionatzen zuen Unai Landaren motoreak.

Arazo horiek gutxi izan ez eta, banatzaileen aldetik ez zeukaten babes finantzariorik eta, garapen-taldeko aldaketa etengabeen ondorioz³⁹, laneko giroa «gaiztotuta» zegoen. Jokoa behin baino gehiagotan egon zen berreskuratu beharreko proiektuen kaxoian sartuta.

Praetoriansen ibilbide gorabeheratsua 2003ko otsailaren 28an amaitu zen. Javier Arévaloren gidaritzapean eta Eidos Interactiveren lau milioi euroko inbertsioarekin⁴⁰, Julio Zesarren Erromako kanpainetan oinarritutako PCrako denbora errealeko estrategia-jokoa mundu osoko 50 herrialdetako dendetara iritsi zen, eta Espainian gehien saldutako jokoa izan zen.

II. Mundu Gerrari zukua ateratzen

Commandos 2 argitaratzearekin bat langile askok Pyro Studiosetik alde egin arren, urrezko arrautzen oiloa ustiatzen jarraitzeko asmoari eutsi zion Ignacio Pérez Dolsetek. Eta, oraingoan ere britainiarren laguntza zuela, makina guztiak martxan jarri zituen berriro ere, hirugarren zatiari ekiteko: *Commandos 3: Destination Berlin (Commandos 3)*. Orduko aurrekontua, baina, *Commandos 2*k kostatu zuenaren laurdena zen.

Madrilgo konpainian jarraitzea erabaki zuten euskal programatzaileetako bat Ismael Raya izan zen, Goblins taldeko kide ohia. Programazio-buru izendatu zuten. Rayak azaltzen duenez, «programazio-lan batzuk egin nituen, kodea pikatzen jardun nuen pixka batean, baina taldea

39. 2000. urteko urtarrilean, *Commandos 2*, *Praetorians* eta *Heart of Stone* jokoak aurkeztu zizkion Pyro Studiosek Eidos Interactiveri, eta azkenerako finantzazioa lortu zuen bakarrik. Handik gutxira, Igor Ruiz grafistak enpresa utzi behar izan zuen, eta Javier Fáfula, *Praetorianseko* programatzaileen buru eta Ruizen adiskidea, ere egoera berean aurkitu zen handik denbora gutxira. Gainera, garai bertsean bertan behera gelditu zen *Heart of Stone* bideo-jokoa, eta César Astudillo jokoaren arduradun nagusiak ere Madrilgo enpresa utzi behar izan zuen. Astudilloren taldeko kide batzuk *Praetoriansen* jarri zituzten lanean.

40. Díaz López, María. «Llega "Praetorians", el videojuego "made in Spain" más esperado». *El Mundo* - Navegante.com (2003ko otsailaren 25a) <http://www.elmundo.es/navegante/2003/02/25/laimagen/1046196237.html> [online] [Kontsulta: 2015eko azaroaren 26a]

kudeatzea izan zen nire eginkizun nagusia»⁴¹. Hogei bat lagun aritu ziren guztira: zazpi programatzaile, sei artista eta beste horrenbeste diseinatzaile –Michael Santorum arabarra, haien artean– eta testerrak.

*Commandos 3*ren berrikuntza handienetako bat alderdi grafiko berritua izan zen, eszenatokien errotazioa simulatzen zuten kameren mugimendua eragiten zuen sistema dinamiko bati esker lortua. Rayak gogoratzen duenez, «pintaketa aldatu eta produkzio bisual eraginkorragoa egin zen». Horrek akabera guztiz ikusgarria eskaintzen zuen, laino-efektu bikain batekin. Hala eta guztiz ere, prentsa espezializatuak gogor egurtu zuen jokoa, aldaketa horrek arerioak pantailan aurkitzea galarazten omen zuelako.

Bideo-jokoa 2003ko urriari jarri zen salgai, eta aurrekoaren erdia saldu zen.

Proiektua amaituta, Michael Santorum diseinatzaile arabarrak bere karrera profesionala Pérez Dolseten enpresatik kanpo jarraitzea erabaki zuen, eta Tragnarion Studiosera⁴² jo zuen, Xbox 360 kontsolarako *Legend of Cathari* akzio- eta rol-jokoaren prototipoaren *game designer* gisa aritzeko.

Commandos 3 ez zen sagako azkena izan. 2003ko udan, *Commandos 3* kaleratzeko gutxi falta zela, *Commandos: Strike Force (Commandos 4)* izango zenaren oinarriak finkatzen hasi zen lan-talde berri bat. Bederatzi milioi dolarreko (8.242.513,05 euro) aurrekontu batekin, jokoa planteamendua goitik behera aldatu zuten, eta estrategia-jokoa zena lehen pertsonako tiro-jokoa (*first person shooter*) bihurtu zen. Betiko jokalariek bizkarra eman zioten joko berriari. *Medal of Honor* (Electronic Arts) eta *Call of Duty* (Activision) moduko jokoen modari jarraitzen zion *Commandos: Strike Force*ek.

41. Rayak azaltzen duenez, programazio-burua zen aldetik, jendea kontratatzeko eskumena zeukan. «Talentu bila joan nintzen Euskal Party-ra. Baten bat fitxatu bagenuen ere, makal samar zegoen demoeszena, eta, gauzak horrela, Madrilgo Universidad Complutenseko Bideo Jokoen Garapenerako Masterrean zebiltzan ikasleengana jo genuen».

42. «Tragnarion, nuevo estudio de desarrollo de juegos español». Meristation.com (2005eko irailaren 2a) <http://www.meristation.com/nintendo-wii-u/noticias/tragnarion-nuevo-estudio-de-desarrollo-de-juegos-espanol/1365/1634754> [online] [Kontsulta: 2015eko azaroaren 26a]

Hasiera batean, 2005ean argitaratzekoa zen *Commandos 4*, baina haren garapenak buruhauste ugari eragin zizkion era horretako jokorik egin gabea zen 30 lagunetik gorako lan-taldeari. Gainera, jokalari ugarirako partidak eskaintzeko eskatu zuen Eidos Interactivek.

Jokoa 2006ko martxoaren 17an iritsi zen dendetara, PC, Xbox 360 eta PS2rako, eta harrera hotza jaso zuen kritikaren eta erosleen aldetik. «Jokoa ez zen txarra», nabarmentzen du bertsiio hartan ere programazio-buru aritu zen Ismael Rayak. «Baina garai hartan zegoenarekin alderatuta, atzean gelditu zen». Eidos Interactive banatu egin zen, gainera, eta bolada finantzario txarra pasatzen ari zen lehiatzaileen erosteko eskaintza publikoen erdian. Egoera ikusita, saga hura denbora luze baterako alde batera uztea⁴³, eta beste proiektu batzuetan murgiltzea erabaki zuen Pyro Studiosek.

BA AL DAGO BIZITZARIK *COMMANDO*SETIK HARATAGO?

*Commandos 2*ren garapena erloju-bonba baten modukoa izan zen, eta denborarekin era guztietako ika-mikak piztu zituen Pyro Studiosen barruan, Ignacio Pérez Dolseten eta «Gonzo» Suárezen arteko gerra bizian ikusi zitekeen moduan. Haien arteko bat etorri ezina enpresako gainerako taldeetara hedatu zen; azkenerako, *Commando*seko zuzendari eta diseinatzaileak enpresa utzi zuen, eta, handi pixka batera, haren laguntzaile gertukoenek.

Bizitza berri bat Pyro Studiosentzat

Commandos saga alde batera utzi eta gero, Pyro Studioseko taldeek joko berriak garatzen jarraitu zuten, hala nola *Cops*⁴⁴ eta *Planet*

43. Varela, Ramón. «Pyro confirma el nuevo *Commandos*, que será para smartphone y tabletas». Vandal.net (2014ko irailaren 19a). <http://www.vandal.net/noticia/1350655717/pyro-confirma-el-nuevo-commandos-que-sera-para-smartphone-y-tabletas/> [online] [Kontsulta: 2015eko azaroaren 26a]

44. Joko haiek bertan behera utzi eta gero, *Planet 51n* oinarritutako jokoa bultzatzeari lotu zitzaion enpresa.

51, azken hori Ilion Animation animazio-estudioaren⁴⁵ izen bereko filmean oinarritua. Ismael Rayak azaltzen duenez, Xbox 360erako eta PlayStation 3rako bertsioak garatzeko Unreal Engine⁴⁶ motorea erabili zuen zazpi programatzaile, sei artista eta bost diseinatzailez osatutako garapen-taldeak.

Nintendo Wii-rako bertsiorako motorea hutsetik garatu behar izan zuten⁴⁷, eta Wiiz izena jarri zioten enpresa barruan. «Botere bereziak zeuzkan haur bati buruzko joko baterako —*Gifted*— hasiak ziren motor hura garatzen hasiera batean, baina jokoa bertan behera gelditu zen». Azkenean *Planet 51*ren oinarri gisa erabili zuten. «Kalitatezko motor bat eta ekoizpen-sistema bat gelditu zitzaizkigun, oso oso landuak, bai grafikoki bai fisikoki zegokienez», diosku berriro ere programazio-buru jardun behar izan zuen programatzaile bilbotarrak. «Oso harro nago egin genuenarekin, *Commandoserako* egindako lanarekin baino askoz harroago», aitortzen du. Rayak eta haren taldeak Wiirako sortu zuten motorea, baina, ez zen Madrilgo enpresaren beste inongo jokotan erabiliko.

Proiektu zehatz hartan «zazpi programatzaile, dozena erdi artista eta diseinu-arloko bost lagun aritu ziren lanean. Guztira hemezortzi pertsona, gutxi gorabehera». Jokoa 2009ko azaroaren 17an merkaturatu zuten, eta Sega izan zen mundu osorako banatzailea. Nintendo DS eramangarrirako bertsio bat izan zuen, Firebrand Games eskoziarrek egina, eta PCrako mundu birtual bat, hurrei zuzendua, *Planet 51 Online* izenekoa.

2008an Pyro Studiosek norabidea aldatu eta sare sozialetarako jokoak garatzen hastea erabaki zuen. Negozio-ildo horri jarraiki, handik lau urtera Play Wirelesekin bat egin, eta Pyro Mobile sortu zuten: gailu

45. Ilion Animation estudioa 2002an sortu zuten Javier eta Ignacio Pérez Dolset anaiek, eta *Planet 51* (2009) eta *Mortadelo y Filemón contra Jimmy el «Cachondo»* (2014) filmak ekoitzi zituen, besteak beste.

46. Unreal Engine PC eta kontsoletarako joko-motore bat da, Epic Games konpainiak sortua. 1998an erabili zen lehenbiziko aldiz, *Unreal* izeneko jokoan, eta geroago enpresa horren nahiz beste enpresa batzuen joko asko eta askotan.

47. Unreal Engine Nintendo Wiiren garapen-kitekin bateragarria izango zela iragarri bazuten ere, Pyro Studiosek ez zuen itxoin nahi izan eta bere motorea garatu zuen. «*Planet 51* Wiirako salgai jarri zenerako, Epic-ek Nintendoren kontsolarako Unreal Engineren bertsioa atera zuen», zehazten du.

mugikorretarako eta sare sozialetarako aplikazioak garatzen zituen enpresa.

Ismael Raya bilbotarrak programazio-arloa zuzentzen jarraitzen du gaur egun. Haren iritziz, plataforma berri horietarako lan egitea «ez da A hirukoitzeko joko bat egitea bezain atsegingarria», baina onartzen du, garapen-mailan, «badituela erronka interesgarri batzuk erabiltzaile pila bat aldi berean konektatzen direneko zerbitzari bat kudeatzeari dagokionez». Rayaren parte-hartzea izan duten azken garaietako jokoen artean, Facebook bidez argitaratutako *Sport City* eta *Adventure Park*, eta *The Moleys*, mugikorretarako jokoak, nabarmentzen dira.

The Lord of Creatures

Pyro Studios utzi eta gero, «Gonzo» Suárez, Jon Beltrán de Heredia eta beste lankide ohi batzuek Arvirago Entertainment enpresa sortu eta *The Lord of Creatures* izeneko bideo-jokoaren proiektua jarri zuten martxan. Hainbat jokalarari aldi berean Internetez jokatzen zireneko fantasiako unibertso batean oinarritzen zen jokoak, eta prentsa espezializatuaren arreta piztu zuen. «*Commandos* sagan jardundakoak ginenez, errekonozimendu positiboa geneukan», aipatzen digu gasteiztarrak.

Halere, bazkideek ez zeukaten jokoaren garapen osoa egiteko adina kapitalik, eta abentura hartan lagunduko zieten inbestitzaileen bila hasi ziren. Beltrán de Heredia buru-belarri murgildu zen zeregin horretan.

Ez zen lan erreza izan *The Lord of Creatures* martxan jartzea. Gasteiztarrak dioenez, «Electronic Artsekin hartu-emanetan geundelarik, Bullnet Capital arrisku-kapitaleko sozietateak inbertsio bat egin zuen Arviragon⁴⁸. Horrekin zenbait soldata ordaintzea izan genuen». Dena den, Take-Two Interactivek⁴⁹ interesa erakutsi eta garapenaren zati bat finantzatzea erabaki zuenean baino ez ziren hasi tunelaren beste aldean argi pixka bat ikusten.

48. Xehetasun gehiago: <http://www.grupobullnet.com/arvirago.html> [on line] [Kontsulta: 2015eko azaroaren 26a]

49. Bideo-jokoak garatzen eta banatzen espezializatutako enpresa, *Grand Theft Auto* eta *Bioshock* frankiziak esate baterako.

Beltrán de Herediak azaltzen duenez, Take-Twokoek kontzeptu-proba (POC) baterako dirua jarri zuten. «Hitzarmena sinatzea lortu genuen, baina finantzazioak urriegia izaten jarraitzen zuen». Gainera, dirua eman zutenean gerra betean murgilduta zegoen Nyeko enpresa, eta liskarra ez zen konpondu harik eta Rockstar GamesTwok⁵⁰, hasiera batean enpresaren zati bat baino ez zuenak, Take-Tworen gaineko kontrola eskuratu zuen arte. Inbertsioak berraztertzen hasi ziren orduan, eta garatzen ari ziren joko asko bertan behera uztea erabaki zuten». Haien artean zegoen *The Lord of Creatures*.

Denborak ematen duen distantziarekin, Beltrán de Herediaren iritziz, Pyro Studiosetik atera eta gero *Commandos*en tankerako bideo-joko bat egin izan bazuten, «enpresa martxan jartzeko formula egokia izango zatekeen».

The Lord of Creatures bertan behera geratu izanak akabera eman zion Arviragon emandako bost urteei eta Madrilen bizitako lan-abenturari. Gasteizera itzulita, Symnum Systems proiektu pertsonalari ekin zion Beltrán de Herdiak, eta Mouin Web to Mobileren⁵¹ sortzaile eta zuzendari exekutiboa izan zen. Bost urte luze eman zituen enpresa horretan, eta han ziren, halaber, Raúl Ramos eta Julio García gasteiztarrak ere.

Bolada batez bideo-jokoen mundutik aldentuta ibili eta gero, egun batean telefono-dei bat jaso zuen. Ignacio Pérez Dolset zen. Ekoizleak U-tad ireki zuen Las Rozasen (Madril), mundu digitalera bideratutako profesionalak trebatzeko unibertsitate pribatua. Bideo-jokoen programazioari buruzko masterra zuzenduko zuen norbaiten bila zebilen Pérez Dolset. Beltrán de Herediak baiezkoa eman zion. «Denboran bidaiatzea bezalakoa izan zen, irakasleen artean Pyro Studiosen garaiko jende asko aurkitu bainuen».

Azken urteotan, Espainiako bideo-joko industriako hartu-emanak berreskuratu ditu Beltrán de Herediak, eta Kataluniako Digital Legendseko kanpo-kolaboratzaile gisa aritu da.

50. 1998an New Yorken sortutako Rockstar zigilua Take-Two Interactive konpainiarena da.

51. Gailu mugikorretarako eduki eta zerbitzuen garatzaile, diseinatzaile eta hornitzaileentzako teknologia sortzen zuen enpresak, eta Interneten erabilera gailu mugikorretan errazteko lanak egiten zituen halaber.

Eta ez du sekula baztertu kodearekiko daukan grina. Berez, *freelance* gisa jardun du hainbat proiektutan. Metaforak hautemateko software batean, adibidez. «AEBetako IARPAk (Gobernuko Adimen Ikerketako Proiektu Aurreratuetarako Agentzia, Informazio Sailaren barruan dagoena. CIArekin eta NSArekin batera) finantzatutako proiektu bat zen. Ez zegoen sekretupean, eta bost talde zebiltzan bertan lanean, ingeles, errusiera, gaztelania, Mexikoko gaztelania eta pertsierako metaforak hautemango zituen softwarea garatzeko lehian».

Beltrán de Herediak bi urte eman zituen han, era guztietako algoritmoak garatzen. Aitortzen duenez «metaforak hautematea oso zeregin konplexua da, eta, gainera, testu-bolumen handi-handi baten analisi estatistikoa egin beharra dago».

Korear amodioa

Jon Beltrán de Herediak, «Gonzo» Suárezek eta Pyro Studioseko beste kide ohi batzuek Arvirago Entertainment bultzatzen zuten bitartean, beste lankide ohi batzuek beren bideo-joko enpresa sortu zuten. Jorge Gómez, Guillermo Tostón eta Iñigo Hernáezen Trilobite Graphics⁵² *outsourcing* grafikoko⁵³ estudioa hartu zuten oinarritzat, eta hara joan ziren Pyro Studioseko garapen-taldeko beste kide garrantzitsu batzuk ere: Unai Landa (teknologia-burua), Álex Camaño⁵⁴ (diseinu-burua) eta Arturo Ramírez Montesinos (programazio-burua). Denera, 23 lagunek osatu zuten lan-taldea, *Commandos* en eta *Praetorians* en edota Dinamic Multimedia bezalako beste enpresa espainiar batzuetan aritutako garatzaile eta grafistak gehienak ere.

52. Enpresak Madrilgo Doctor Gómez Ulla kaleko etxabe batean zeukan egoitza.

53. Beste enpresa batzuentzat grafikoak egiten zituen enpresa.

54. Álex Camañok dioenez «*Commandos 2* garatzen bukatzean, *Praetorians* proiektura pasatu ninduten. Proiektu horrek lau urte zeramatzan estudioan gora eta behera, eta berriz berregin nahi zuten. Etsita nengoen. Baina nire lankide izandako batzuk bideo-jokoak garatzeko enpresa berri bat sortzen ari zirela jakin nuen, eta, beraz, nire kaleratzea negoziatu eta Trilobitera joan nintzen».

Proiektuak Hego Koreako Phantagram⁵⁵ enpresaren babes finantzarioa zeukan, Hernáezek egindako lan komertzialari esker. «Dirua zegoen eta aukera ezin hobea zen guretzat, Espainian ez baitzegoen beste enpresarik egoera hartan», azaltzen digu Camañok.

Trilobitekoek *Duality*⁵⁶ bideo-jokoa egin nahi zuten, PCrako eta Xboxerako rol- eta akzio-jokoa. Bilbotar programatzaileak dioenez, «oso itxura ona zeukan» proiektuak. «Hainbat bidaia egin genituen E3ra⁵⁷, eta jokoak izango zuen itxuraren erakustaldi bat egin ziguten. Gure jendea oso itxaropentsu zegoen, eta korearrak ere bai».

Hasiera batean 2002⁵⁸ amaieran zen merkaturatzekoa, baina, urte eta erdi lanean jardun eta gero, grafiko eta teknologia asko besterik ez zuten, baina batere *gameplay*rik ez. Orduan hasi ziren gauzak okertzen.

Kontsultatutako iturrien arabera, Iñigo Hernáez ekoizleak jokoak garatzeko esperientziarik ez izatea izan omen zen hondamendiaren arrazoietakoa bat. Grafisten kexuak eta matxinada, Trilobiteko bi bazkideren babesa zutenak, Phantagramenganaino iritsi ziren. Korearrek errotik moztea erabaki zuten, eta Hernáez eta Montesinos kargutik kendu, eta Aaron Rigby⁵⁹ izendatu zuten proiektu-buru.

Gauza batzuen eta besteen artean, beste bi urtez luzatu zen proiektua. Trilobiteko barne-arazoei arazo ekonomikoak gehitu zitzaizkien. 2002ko abuztuan, Hego Koreako NCsoft enpresak Phantagrameko akzio batzuk erosi zituen eta, urte amaieran, enpresaren gaineko kontrol osoa

55. Hego Koreako bideo-joko garatzailea, 1994an sortua, *Kingdom Under Fire* frankiziagatik ezaguna.

56. Bideo-jokoaren trailerra: https://www.youtube.com/watch?v=rkZ_76eFG2Q [Online] [Kontsulta: 2015eko azaroaren 26a]

57. Electronic Entertainment Expo, E3 izenez ere ezagutzen dena, AEBetako bideo-jokoen azokarik garrantzitsuena da. Urtero antolatzen da Los Angelesen.

58. Walker, Trey. «ECTS 2001: First look: Duality Xbox». <http://www.gamespot.com/articles/ects-2001-first-look-duality-xbox/1100-2810573/> [Online] [Kontsulta: 2015eko azaroaren 26a]

59. Aaron Rigbyren profila [jeuxonline.info-n: http://www.jeuxonline.info/personnalite/Aaron_Rigby](http://www.jeuxonline.info/n:jeuxonline.info/personnalite/Aaron_Rigby) [Online] [Kontsulta: 2015eko azaroaren 26a]

eskuratu zuen. Jabe berriek martxan zeuden proiektuak berrikusi, eta online erabiltzekoak ez ziren guztiak baztertu zituzten. Azkenik, Espainian zeukan inbertsioa eten zuen *publisherrak*, eta proiektua bertan behera gelditu zen, erdia garatuta zegoela. Sekulako zaplaztekoa izan zen estudioarentzat: porrota deklaratu, eta zor zitzaizkien nominarik eta kaleratzeagatiko kalte-ordainik gabe utzi zituen langile asko.

«Espainiako joko garrantzitsu bat izateko aukera zeukan *Dualityk*. Iruditzen zait handiegia zela han genbiltzanontzat eta Phantagramek egin zuen inbertsiorako», dio Camañok. «Jende oso prestatuarekin sekulako jokoia egiteko aukera egokitu zitzaigun. A hirukoitz ikaragarri bat, baina norabidea markatuko zigun zuzendaritza argirik gabe». Lan-arlo desberdinen arteko «koordinaziorik eza» eragin zuen horrek, eta horren ondorioz okerreko erabaki asko hartu ziren prozesuan.

Nazioarteko euskaldun bat

Trilobite itxi zenean, euskaldunak lan bila hasi ziren. Julio García *freelance* hasi zen eta Unai Landa Pyro Studiosera itzuli zen. *Cops*⁶⁰ bideo-jokoaren oinarria izango zen Xbox 360rako eta Playstation 3rako motorea garatzen aritu zen han, lan-talde batean. «Optimizazio-lan batzuk ere egin nituen, eta *Commandos: Strike Force* eta *Imperial Glory*⁶¹ jokoetan laguntzen aritu nintzen», eransten du.

Álex Camañok, berriz, bi aukera zeuzkan Espainian: Pyro Studiosera edo Dinamic Multimediara itzultzera. «2003 erdialdera jakin nuen Hernán Castillo, Revistronicen sortzailea, programatzaile bila zebilela, Madrilen egiten ari ziren 3Dko abentura grafiko baterako». *Fenimore Fillmore: The Westerner*⁶² izena zeukan. Camaño proiektu horretan hasi zen lanean,

60. Esteve, Jaume. «Cops, el superventas que Pyro canceló» es.IGN.com (2013ko urtarrilaren 21a) <http://es.ign.com/xbox-360/63329/blog/cops-el-superventas-que-pyro-cancelo> [online] [Kontsulta: 2015eko abenduaren 2a]

61. Landak azaltzen duenez, *Occlusion Culling* sistema dinamikoa muntatu zuen *Commandos: Strike Forcen*, eta *Imperial Glory* txandakako estrategia-jokoaren *Nat Detection*en lagundu zuen.

62. *Wanted: A Wild Western Adventure* izenarekin merkaturatu zen AEBetan. Warner Brosek 1996an argitaratutako *Three Skulls of the Toltecs* jokoaren sekuela zen.

eta 3D motorea optimizatzeaz, elkarrizketa-zuhaitzak sortzeko sistema inplementatzeaz, menu-sistemaz eta zenbait mini-jokoez arduratu zen. 2004an argitaratu zuen Planeta DeAgostinik.

Urte hartan bertan, Riva y García talde katalaneko Webcapital eta Spinnaker arrisku-kapitaleko enpresek 1,5 milioi euro inbertitu zituzten Revistroneken, eta horri esker bere proiektu handienetako bati ekin ahal izan zion enpresak: *Eternal Light*⁶³. Hirugarren pertsonan jokatzeko borroka-joko bat zen, eta 2005ean hasi zen garatzen, Álex Camaño programazio-buru zutela. PlayStation 3rako, Xbox 360rako eta PCrako egokituta zegoen joko hura Erdi Aro ilun batean zegoen kokatuta. Jokalariak hiru gudari gidatzen zituzten, deabru-tropel batzuen aurka⁶⁴.

Ikusmin handia piztu bazen ere, ez zuten jokoa finantzatzeko zuten *publisherrik* aurkitu. Camaño azaltzen duenez, «inbestitzaileek ez zuten kontua argi ikusten eta jokoa ez zen abian jartzen. Horren ondorioz, oso talde txikia geneukan, bospasei lagun besterik ez». Jokoa garapena atzeratuz eta atzeratuz joan zen, harik eta 2011n, Hernán Castilloren enpresak lurra jo eta bertan behera gelditu zen arte.

Eternal Light garatzen ari ziren garai berean, José Pozok zuzendutako *Donkey Xote*⁶⁵ animazio-filmean oinarritutako bideo-jokoa egiteko kontratua eskuratu zuen Revistronek, Filmax Animationekin eta Virgin Play⁶⁶ banatzailearekin sinatutako akordio bati esker. Álex Camaño programatzaile bizkaitarrak gogoratzen duenez, zine-ekoizlearentzat «bideo-jokoa marketing-tresna bat baino ez zen». Nolanahi ere, eragozpen batzuk izan zituzten jokoa garatzeko garaian, Filmaxek ez baitzuen filmaren argumentua eman. «Bartzelonara joan behar izan

63. Bolada batez, *Witches* izan zen jokoa behin-behineko izena.

64. Blanch, Sergi. «Avance. Witches». Meristation.com (2008ko martxoaren 7a). <http://www.meristation.com/pc/witches/avance-juego/1518382/1589968> [Online] [Kontsulta: 2015eko azaroaren 28a]

65. Braun, Andrés. «"Donkey Xote", a la vez en el cine y en las consolas». (*El País*. 2007ko abenduaren 11) http://elpais.com/diario/2007/12/11/radiotv/1197327606_850215.html [Online] [Kontsulta: 2015eko azaroaren 28a]

66. Revistronek bezala, Filmax zine-ekoizleak eta Virgin Play banatzaileak Riva y García taldearen inbertsioak jaso zituzten.

nuen, jokoan sartuko genituen filmeko kapturak aukeratzera, eta haiekin filmekoaz bestelako istorio bat asmatu behar izan nuen».

Hori gutxi ez eta, nahiz eta *Donkey Xote* bideo-jokoa hasiera batean PCrako bakarrik argitaratzeko asmoa egon, ekoizpen-etxeak kontsolarako ere kaleratzea erabaki zuen⁶⁷. «Erabaki hura guztiz barregarria zen», salatzen du Camañok. «Hiru programatzaile eta dozena erdi grafista ginen. Gainera, urtebete baino ez geneukan joko haiek guztiak egiteko, eta alde handi samarra zegoen haien artean. Ezinezkoa zen garaiz iristea». Langile gehiago kontratatzeko eta epea sei hilabete atzeratzeko eskatu bazuen ere, zeukatenarekin moldatu behar izan zuten.

Espainiako bideo-joko enpresetako lan egiteko moduz aspertu egin zen, lan-indar hutsa eta lanordu piloa baitziren eredia, eta atzerrira joatea erabaki zuen Camañok. Hasiera batean, Pandemic Studiosen⁶⁸ Australiako egoitzara eta Ubisoft Montrealera (Kanada) bidali zuen CVA. «Telefonozko elkarrizketa bana izan nuen, baina kanadiarrak izan ziren azkarrenak».

Bilbotar programatzaileak oroitzen duenez, «pozez txoratzen» zegoen zetorkion aukerarekin. «Lehenbiziko *Assassin's Creed* egiten ari zen Ubisoft Montreal, eta pentsatu nuen aukera bikaina zela hura. Beraz, maletak egin eta harantz abiatu nintzen». 2007ko azaroan hasi zen lanean. Orduz geroztik programatzaile aritu da, garapen-arlo desberdinetan, bideo-jokoen superproduktzio hauetan: *Rainbow Six Vegas 2* (2008), *Assassins Creed II* (2009) eta *Shaun White Skateboarding* (2010)

Kanadarako egokitzapena eta kultur desberdintasuna «gogor samarra» izan zela aitortzen du Camañok. «Bileretan frantsesez hitz egiten zuten eta nik ez nuen zipitzik ulertzen», oroitzen du. Lan-giroari dagokionez, errazago egokitu zen. «Espainiako langileok zailduta geunden. Gu

67. PlayStation 2, PlayStation Portable (PSP) eta Nintendo DS.

68. Josh Resnick eta Andrew Goldman, Activisioneko langile ohiek sortu zuten garapen-enpresa 1998an, eta azken horren kapital-inbertsioa zeukan. Los Angelesen (AEB) zeukan egoitza nagusia, eta 2000. urtean bulegoa ireki zuen Brisbanen. Urte batzuk geroago Electronic Arts enpresaren subsidioarioa bihurtu zen, 2009an itxi zuten arte.

trintxera-gudu batetik eta asko sufritzetik gentozen, eta Kanadan, berriz, beste era batekoa zen guztia. Hura lan normal eta lasai bat zen, jendeak bere bizitza zeukan, bere familia eta seme-alabak, nahiz eta gazte samarrak izan».

Denborak aurrera egin ahala, ardurak hartzen joan zen enpresa barruan, arkitektura-teknikari hasieran, eta adimen artifizialeko teknologia-buru gorena, geroago. A hirukoitzeko lan hauetan egin du lan: *Assassin's Creed: Brotherhood* (2010), *The Mighty Quest For Epic Loot* (2013), *Assassins Creed IV: Black flag* (2013) eta *Assassins Creed: Unity* (2014).

2015eko otsailean, Ubisoft Montreal uztea erabaki zuen Camañok *Assassin's Creed* frankiziarekin aspertuta, eta jokoan potentzial guztia industria militarrean erabiltzeko lan-eskaintza bat jaso eta gero, TitanIM enpresatik⁶⁹. Trebakuntza militarreko simulazio-inguruneak sortzeko plataforma bat garatzen ari da gaur egun TitanIM.

Giroz aldatu arren, bilbotarrak dio bideo-jokoan industriara itzultzeko asmoa duela berandu baino lehen.

«Yuio»ren bizitza berria

Trilobiten aritu eta gero bideo-jokoekin etsita bukatu zuen beste euskaldun bat Julio García «Yuio» izan zen. Jon Beltrán de Heredia bezala, etxera itzuli zen, Gasteizera. Bolada batez Ingalaterran lana bilatzen egon eta gero, Jaéngo TAOSpain⁷⁰ enpresarentzat autonomo gisa lan eginez itzuli zen lan-merkatura. Garai hartan programatzaile bat behar zuten, eta Juliok zenbait lan korapilatsu konpondu zizkien Gasteizetik.

Jaéngo enpresak simulazio birtualak egiten zituen, ferietarako eta publizitate-standetarako elektronikarekin nahastuta, eta, arlo horren barruan, erretroproiekzioak eta sentsoreak erabiltzen zituen akuario interaktibo eta birtual bat garatzen lagundu zuen García, Donostiako

69. Xehetasun gehiago: <http://titanim.net/www/> [on line]
[Kontsulta: 2015eko azaroaren 28a]

70. TAOSpainek Deiko Smart Devices izena du gaur egun. TAOSpaini buruzko informazio gehiago *LOAD: Euskal bideo-jokoan historia (1985-2009)* liburuko 5. kapituluan.

KutxaEspaziorako. «Umeak proiektziora hurbiltzen zirenean, arrainek ihes egiten zuten».

TAOSpainerako lanean ari zela, bideo-joko bat egiteko proiektua sortu zen. 1992an sortutako *Squash* jolas-makinaren bigarren zatia egin nahi zuen Bartzelonako Gaelco konpainiak. Julio Garcíaren hitzetan, «3Dko jarraipena egitea» eskaini zuten Jaéngoek, «lehen jokoaren bideari jarraiki», eta Gaelcok baiezkota eman zion ideia hari. Gure programatzailea garapenean aritu zen lanean, eta enpresaren Bartzelonako bulegoan izan zen zenbait alditan, jatorrizko garatzaileekin⁷¹ hitz egin eta, horrela, alderdi fisikoak nola programatu zituzten jakiteko, berak ere emaitza jokagarri eta dibertigarri bat lortzeko asmoz.

Bederatzi hilabeteko lanaren ondoren, jokoaren erdia eginda zegoela, proiektua bertan behera uztea erabaki zuen Gaelcok.

Julio Garcíaren hurrengo urratsa telefono mugikorretarako jokoak garatzea izan zen, oraingoan Xprim Studios enpresan. «Java⁷² eta koloretako pantailak zeuzkaten lehen mugikorrek merkaturatu berriak zeuden orduan», gogoratzen du gasteiztarrek. Baina, abantaila zena «infernu erabatekoa» zen, aldi berean.

«Java mugikorretarako estandarra izan arren, joko mugikor-modelo bakoitzera eta haien ezaugarrietara egokitu beharra zegoen beti, memoria-mugak edo pantailaren bereizmena kontuan hartuz. Denbora asko eskatzen zuen eta buruhauste ugari eragiten zituen horrek, eta jokoak ez ziren batere errentagarriak», azpimarratzen du.

Euskal proiektu bat Disneyrako

Julio Garcíaren egunak banan-banan igarotzen ziren, beste batzuentzako softwarea garatu eta mugikorretarako bideo-jokoak

71. Esteve Polls, Xavi Fradera, Luis Jonama eta Alexander Ekjanov izan ziren *Squash*en garatzaileak.

72. Sun Microsystemseko James Goslingek garatutako programazio-lengoaia. Softwarea behin idatzi eta edozein gailutan exekutatzeko aukera ematen du teorian.

egiten zituen bitartean. Gasteizen errealitate birtuala lantzen zuen enpresa bat zegoela jakin zuen: EUVE-European Virtual Engineering zentro teknologikoa, 1999an sortua, eta fundazio baten forma juridikoarekin diharduena gaur egun. Bere hautagaitza aurkeztu eta lan-elkarrizketa bat egin eta gero, maketen eta ingurune birtualen sailean bukatu zuen.

Garcíaren proiekturik garrantzitsuena bi urte geroago iritsi zen. Disney Worldeko (Florida, AEB) Epcot⁷³ parkearen barruan atrakzio bat martxan jartzeko proiektua aurkeztu zuen EUVE zentro teknologikoak, Waste Management Inc. hondakin-enpresa estatubatuarraren finantzazioarekin. Bost eta hirurogeita hamar urte bitarteko familiei hondakinak tratatzeko eta birziklatzeko prozesu guztiak irakatsi nahi zitzaizkien, bideo-joko txiki batzuen bidez. Diego Bajorena zen proiektuaren ardura eta Julio García izendatu zuten programatzaileen zuzendari.

Don't Waste it proiektua urtebeteko epean zen egitekoa. «Nahiz eta diseinua lehentxeago hasita egon, ni 2007ko maiatza hasieran joan nintzen Orlandora lehenbiziko aldiz. Han bilera bat egin eta atrakzioaren alderdi kontzeptualak eztabaidatu genituen, gero teknologia-proba batzuetan probatu eta, geroago, joko-proba batzuetara eramateko». Lan-molde horri jarraiki, EUVEko 14 langilez osatutako talde batek AEBetara joan behar izaten zuen bost astetik behin. Lehen bidaian Waste Managementek Floridan zeukan birziklatze-instalazio batera joan ziren: hango funtzionamendua zertan zen ikusi, eta ideiak atera zituzten bideo-jokoetarako.

Urtebeteko garapenaren ondoren, eta mila bat arazo gainditu eta hamar joko-proba egin eta gero, atrakzioa martxan jarri zen 2008ko martxoaren 4an. «Handik zortzi-bederatzi hilabetera berriro itzuli ginen, erabiltzaileen esperientzian oinarritutako hobekuntza batzuk egitera», dio García.

Epoceko instalazioa saski-baloi kantxa baten erdia inguru zen eta, gasteiztarrak dioenez, «1970ko hamarkadan abandonatutako atrakzio

73. Floridako Walt Disney World Resorten kokatutako parke tematikoa. Magic Kingdomen ondoren Disney Worlddek ireki zuen bigarren parkea izan zen. Nazioarteko kultura eta berrikuntza teknologikoa ditu gaitzat. <https://es.wikipedia.org/wiki/Epcot> [Online] [Kontsulta: 2015eko abenduaren 2a]

baten lekua hartu zuen». *Don't Waste it* birziklatzearen garrantziari buruzko hitzaldi batekin hasten zen, eta barruan aurkitzekoa zenari buruzko azalpen labur batekin. Erregistro-gunean izena eman, eta Waste Managementen zabor-kamioi baten formako gurditxo bat hartzen zuten familiek. Garcíak zehazten duenez, «eskuz eginda zegoen, beira-zuntzarekin, eta pantaila bat zeukan goiko aldean, eta soinuak». «Gainera, memoria-txartel baten modukoa zen, eta atrakzioko bideo-joko bakoitzean lortutako puntuak han gordetzen zituzten familiek».

Hiru joko zeuzkan instalazioak. Lehenak *Sort it out* izena zeukan, eta bertan zaborra banatu beharra zegoen, lau ukimen-pantailaren bidez. «Familiako kide bakoitzak bere pantaila zeukan. Uhal garraiatzaile bat simulatzen zen, eta han agertzen zen beira, plastiko, paper eta zabor organikoa zegokion edukiontzira eramane behar zuten jokalariek eskuarekin», zehazten digu Garcíak.

Landfill Up izena zeukan bigarren atrakzioak. Lau *joystick* zeuzkan, eta haiekin zabor-metak jaso eta zabortegira eramaten zituen *bulldozer* bana gidatzen zen.

Fuel the burn zen hirugarren eta azkena, errauskailu baten jarduna simulatzen zuen bi garaierako instalazioa. *Bulldozer* batzuen bi bolante zeuden behealdean, alde bateko zaborra antolatu eta pilotzeko, eta goiko aldean, berriz, bi *joystick* zeuden, hondakinak jaso eta errauskailuan sartzen zituen garabi bat kontrolatzeko. Julio Garcíak dioenez, «lana ondo egiteko oso garrantzitsua zen taldea ondo koordinatzea».

Familiak kamioi formako gurditxoa bere lekuan uzten zuenean amaitzen zen *Don't Waste it* atrakzioa. Sistemak diploma birtual bat sortzen zuen, hiru mini-jokoen puntuazio orokorrarekin, eta posta elektronikoko bidez jaso zitekeen.

Garcíak azaltzen duenez, instalazio haren berezitasunen artean egun osoan piztuta irauteko ahalmena nabarmentzen zen. «Disneykoek oso argi utzi ziguten jokoek ezin zutela inoiz funtzionamendurik gabe gelditu. Hori galarazteko, gauero automatikoki berrabiarazten ziren, ordu jakin batean, eta, horrela, sistema garbi gelditzen zen biharamunerako».

Don't Waste itek iraungitze-data zeukan, Waste Managementek atrakzio horretarako emandako babesak lau urterako baitzen bakarrik. 2011ko ekainaren 11n ateak itxi zituen. «Disney Worldekoak oso pozik gelditu ziren emaitzarekin eta esan zigutenez beren atrakziorik egonkorrenetakoa izan omen zen».

Disney Worldeko abentura amaituta, eta EUVEEn bost urte eman eta gero, Mouin Web to Mobilerak joatea erabaki zuen Garcíak. Han Jon Beltrán de Herediarekin eta Raúl Ramosekin egokitu zen berriro ere. Ia bi urte egon zen bertan, programatzaile. Azken urteotan ondare historiko, artistiko eta arkeologikoari lotutako Enklabe KST kooperatibarako ari da lanean, eta 3D eskanerretatik datozen datuak denbora errealean bistaratzeko sistema bat garatzen ari da.

ZERGATIK JOAN NINTZEN EUSKAL HERRITIK?

Kapitulu honetan ikusi dugunez, demoeszena-munduan trebatu ondoren bideo-jokoetarako jauzia egin nahi izan zuten gazte gehienek Euskal Herriatik kanpora joan behar izan zuten. Bakoitzak bere arrazoiak zeuzkan, baina denak bat datoz diagnosian: hemen ez zegoen enpresarik.

«Ez zegoen ezer ere bideo-jokoen alorrean», dio saminez Álex Camañok. «Marrakiz bizidunak egiten egon nintzen enpresan noiz edo noiz hitz egin zen bideo-jokoak egiteko aukeraz, baina ez zen inoiz gauzatzen. Bideo-abentura bat egitea proposatu nuen, den-dena baikeneukan: animatzaileak, grafistak, programatzaileak..., baina ez zen martxan jarri. Gainera, ez zegoen hartu-emanik Espainiako bideo-jokoen industriarekin, eta animazio-ekoiztetxeak ere ez zuen arriskatu nahi», dio kexuka.

Goblinsen berarekin ibilitako Ismael Rayak zera gehitzen du: «bideo-jokoen garatzaile asko eta asko eman ditu Euskal Herriak, baina, bizitzaren gorabeheren ondorioz, arrakasta izan duten enpresa gehienak Madrilan etaartzelotan egon dira beti, eta kanpora joatea egokitu zitzaigun, beraz». Ildo horretan, «historian zehar Euskal Herrian ez dugu bideo-joko enpresa handirik izan —gehitzen du—, ez eta guregana talentua erakarri zezakeen ekoizpen arrakastatsu handirik ere, Zeus Softwareren *Risky Woods* (1992) kenduta».

Jon Beltrán de Heredia ere iritzi berekoa da. «Ni Donostiara edo Bilbora joango nintzen lanera, baina han ez zegoen ezer, edo nik behintzat ez nuen sektoreko inor ezagutu». Gainera, *Commandoseko* programazio-arduradunak azpimarratzen du berak bideo-jokoak egin nahi zituela eta, horretarako, Madrilera joan beharra zegoen. «Nazioartean ere egongo zen gauza gehiagorik —erasten du—, baina garai hartan ez zitzaidan erakargarria gertatzen. Bestalde, Madrilera joatea merkeagoa zen hegazkina hartu eta Londresera joatea baino».

Egungo egoerari dagokionez, Euskal Herriko bideo-joko enpresak «ahal duten moduan dabilta» Álex Camañoaren iritziz. Kataluniarekiko aldea nabarmentzen du, hemen bezala, han 1980ko eta 1990ko hamarkadetan egin baitzituzten lehen urratsak bideo-jokoen munduan. Baina denborarekin asmatu dute konpainia handiak erakartzen eta bertan finkatu dira Ubisoft, King, Digital Legends eta Social Point, bestek beste. «Euskal Herrian ez dugu ezer muntatu, eta denbora soberan izan dugu», dio atsekabetuta.

Egoera iraultzeko asmoz, nazioartean ibilbide luzeena duen gure programatzaileak uste dut adituak behar ditugula Euskal Herrian, «garatzaile berriei bideo-jokoen negozioa bideratzen irakasteko». Horrekin batera, «bideo-joko enpresen ekosistema bat» sortu beharra dago, joko handi bat merkaturatu «aurretiko ibilbide» guztia egin duten enpresez osatua. «Euskal Herrian sortzen diren enpresek jakin behar dute egiten duten lehen proiektua hurrengoan egitera iritsi daitezkeenaren puska txiki-txiki bat baino ez dela izango seguruenera».

Kanadako bideo-jokoen industria Barcelona F.C. onenarekin alderatzen du Camaño, Espainiakoa Athleticen parean jarriaz. «Adorea dugu, talentua, grina eta proiektu bat ondo burutzeko beharrezko esfortzua eta denbora eskaintzeko gaitasun indibiduala. Baina ezin gara Barçaren makinariaren aurka lehiatu».

Gauzak horrela, Espainian bideo-jokoak egiten lan egitea «ezkongabeentzat edo beste zereginik ez dutenentzat» dela gaitzesten du bilbotarrak. «Gutxi ordaintzen dute, eta asko eskatzen dizute. Zenbait gauzari uko egin behar diezu maila horretan jarraitu ahal izateko», Kanadan ez bezala, han «baliabide eta profesional asko

[baitaude], baina baita lan-denborari askoz etekin handiagoa ateratzea ahalbidetzen duen antolakuntza hobea ere».

ERANSKINA

PYROS STUDIOS-EN IBILITAKO EUSKALDUNEN KRONOLOGIA

1996ean, Ignacio eta Javier Pérez Dolset anaiek, Paradise Interactive Softwareko bazkideak, enpresaren kontrola eskuratu eta Contenidos Interactivos izena jarri zioten enpresari. Hiru proiektu zeuzkaten esku artean: *Cimmeria*, *Commandos* eta *Heart of Stone*.

1997. URTEA

1.- *CIMMERIA*: Unai Landa programatzaile bilbotarrak *Cimmeriaren* lehen motorea garatu zuen. «Zenbait grafiko zeuzkan *tech demo* bat» zen, Jon Beltrán de Herediaren arabera.

2.- *CIMMERIA*: Igor Ruiz «Kostandin» proiektura gehitu zen, grafisten buru bezala. 8 bit-eko jokoak garatzen zituzten garaiko bere lagun Javier Fáfula zen *Cimmeriako* programazio-burua.

3.- *COMMANDOS*: «Gonzo» Suárezek proiektuarekin bat egin eta lehen talde bat osatu zuen, bere konfiantzako jendearekin. Jon Beltrán de Herediarekin jarri zen harremanetan, Javier Arévaloren bidez –*Commandosen* programazio-buru izandakoa–, software «bide-bilatzaile» bat garatu zezan etxetik bertatik, Gasteizetik.

4.- *COMMANDOS*: 1997ko udan, Beltrán de Heredia *Commandosen* garapen-taldean sartu zen. Ingalaterran bilera bat egin eta gero, Pyro Studiosek eta Eidos Interactivek hitzarmen bat sinatu zuen *Commandosen* garapena finantzatzeko. Contenidos Interactivos desegin eta Pyro Studios sortu zen.

5.- *COMMANDOS*: Javier Arévalo High Voltagera joan zen lanera. Jon Beltrán de Heredia gasteiztarrak bete zuen haren lekua programazio-buru gisa eta «Gonzo» Suárezen gertuko laguntzailea bihurtu zen.

6.- *COMMANDOS*: Asier Hernáez Pyro Studiosen hasi zen lanean *Commandos* taldeko *graphic artist* gisa. Handik gutxira, Álex Camaño gehitu zitzaion. Unai Landa, berriz, *Cimmeriatik Commandosera* aldatu zen.

7.- *COMMANDOS*: 1997ko urrian, Asier Hernáezek jokoan egin beharreko lana bukatu, eta enpresa utzi zuen.

1998. URTEA

8.- *CIMMERIA*: Julio García «Yuiio» gasteiztarra 1998ko urtarrilaren 6an iritsi zen Pyro Studiosera, eta *Cimmeria* bideo-jokoaren proiektuan hasi zen lanean, programatzaile gisa.

9.- *CIMMERIA*: 1998ko Aste Santuan, beste programatzaile bat hasi zen *Cimmeria* taldean: Raúl Ramos.

10.- *COMMANDOS*: 1998ko uztailean bukatu zen *Commandosen* garapena.

1998ko erdialdean, César Astudillok zuzentzen zuen *Heart of Stone* piraten proiektua aldatu eta *Multi Character Adventure and Fight (MCAF)* bihurtu zen.

11.- *CIMMERIA*: 1998ko urrian, Javier Arévalo bere nazioarteko bidalditik itzuli eta jokoaren ardura hartu zuen bere gain.

12.- *COMANDOS 2*: Pyro Studioseko beste talde bat *Commandos 2*ren aurreproduktzioa prestatzen hasi zen.

13.- *COMMANDOS MISSION PACK*: Ismael Raya «Phornee» Pyro Studiosera iritsi eta *Commandos: Más allá del deber* misio-multzoa garatzeko taldean hasi zen lanean.

14.- *COMMANDOS (PSX) PROTOTIPOA*: Play Station (PSX) kontsolan zebilen *Commandosen* prototipo bat egiteko eskaera jaso zuen Álex Camaño. Ahalegina alferrikakoa izan zen.

15.- *COMANDOS 2*: Michael Santorum gasteiztarra *Commandos 2* diseinatzen hasi zen lanean. Raúl Ramosek *Cimmeria* bideo-jokoa utzi ondoren «Gonzo» Suárezen ardurapean gelditu zen.

16.- *CIMMERIA*: Jokoa garatzen ari ziren bitartean, motorea hutsetik sortu behar izan zuten berriro, eta proiektuari izena aldatu zioten: *Praetorians*.

1999. URTEA

17.- 7. EUSKAL PARTY-A: 1999ko uztailaren 24an, *Commandos 2*ren garapen-taldeko zenbait kide Donostian egiten ari ziren *euskal partyan* parte hartu zuten, jokoari buruzko hitzaldi bat emanez.

18.- *MISSION PACK COMMANDOS*: *Commandos*en bertsio berria 1999ko uda beteaz iritsi zen dendetara.

2000. URTEA

Urtarrilean *Commandos 2*, *Praetorians* eta *Heart of Stone (MCAF)* jokoak aurkeztu zituzten Eidos Interactiveri, eta lehenerako finantzazioa eskuratu zuten bakarrik. Igor Ruizek *Praetorians* eta Pyro Studios utzi zituen, eta handik gutxira haren adiskide Javier Fáfulak. *Heart of Stone (MCAF)* jokoan lanean zebilen César Astudillok ere estudioa utzi zuen.

19.- *PRAETORIANS*: Julio Garciak Pyro Studios uztea erabaki zuen, denboraldi baterako. Rebel Act estudio madrildarrera joan zen, eta beste euskaldun bat aurkitu zuen han: José Raluy. *Blade: The Edge of Darkness* bideo-jokoa garatzen jardun zuen bi hilabetez.

20.- 8. EUSKAL PARTY-A: *Commandos* sagaren zuzendariak hitzaldi bat eman zuen Bilbon, Pyro Studiosen esku artean zeuzkaten proiektuei buruz (2000ko uztailaren 22an).

2001. URTEA

21.- *COMANDOS 2*: 2001ean, Julio García programatzailea Pyro Studiosera itzuli zen. *Commandos 2*ren garapen-taldean hasi zen lanean.

22.- *PRAETORIANS*: Álex Camaño *Commandos 2*tik *Praetorians*era aldatu zen. Motibazioa galduta, Dinamic Multimedia joatea erabaki zuen. Dinamic Multimedian sei hilabete eman eta gero, beste estudio batera joan zen 2001eko abuztuan: Trilobite Graphics-era.

23.- *COMANDOS 2*: *Commandos 2* bukatzeko aste gutxi gelditzen zirela, Unai Landak eta Julio García Pyro Studios utzi, eta Trilobite Graphics-en hasi ziren lanean.

24.- 9. EUSKAL PARTY-A: Pyro Studioseko zenbait kide Gasteizen egiten ari zen *party*ra joan ziren, *Commandos 2*ren aurkezpen ofiziala egitera (2001eko uztailaren 29an).

25.- *COMANDOS 2*: *Commandos 2* PlayStation 2 eta Xbox kontsoletara egokitzeko lana hasi zen.

26.- *COMANDOS 2*: Jokoa salgai jarri zen 2001eko irailaren 21ean. Egundoko arrakasta izan zuen.

2002. URTEA

27.- *COMMANDOS 3*: *Commandos 3* garatzen hasi ziren. Ismael Raya izendatu zuten programazio-buru, eta Michael Santorum diseinu-arlora itzuli zen.

28.- *PRAETORIANS*: Raúl Ramos gasteiztarra Javier Arévalok zuzendutako taldean hasi zen lanean.

29.- *COMANDOS 2*: 2002ko udan, *Commandos 2*ren PlayStation 2 eta Xbox-erako bertsioak dendetara iritsi ziren.

30.- *COMANDOS 2*: Jon Beltrán de Herediak Pyros Studios utzi zuen 2002ko irailean, eta Arvirago Entertainment sortu zuen, «Gonzo» Suárezekin batera.

2003. URTEA

31.- *PRAETORIANS*: 2003ko otsailaren 28an, bideo-jokoa salgai jarri zen, azkenean.

32.- *COPS*: Unai Landa Pyro Studiosera itzuli zen 2003ko apirilean. *Cops* proiekturako motor bat garatzen ziharduen taldean hasi zen lanean. Azkenean Unreal Engine motorea erabiltzea erabaki zuten, eta bertan behera gelditu zen proiektua.

33.- *COMMANDOS: STRIKE FORCE*: Udan hasi ziren aurreprodukzio-lanak.

34.- *COMMANDOS 3*: Frankiziako hirugarren jokoa urrian jarri zuten salgai. Michael Santorumek Pyros Studios uztea erabaki zuen orduan. Tragnarion Studiosera joan zen lanera.

2004. URTEA

35.- *IMPERIAL GLORY*: Unai Landa eta Raúl Ramos elkarlanean aritu ziren, programazio-lantxoak eginez.

36.- *COMMANDOS: STRIKE FORCE*: Ismael Raya programazio-arloko arduradun nagusia izendatu zuten berriro, teknologiaren garapenean Unai Landa ere bazebilen joko batean.

2005. URTEA

37.- *IMPERIAL GLORY*: Jokoa 2005eko maiatzean jarri zuten salgai, eta Espainiako jokorik salduena eta Ingalaterrako bigarren salduena izan zen.

2006. URTEA

38.- *COMMANDOS: STRIKE FORCE*: Urtebeteko atzerapenarekin, jokoa 2006ko martxoaren 16an jarri zen salgai, azkenean.

39.- *PLANET 51*: Urteko bigarren erdian hasi ziren aurreprodukzio-lanak.

2007. URTEA

Urtarrilean, Unai Landa teknologia-programatzaileak Pyro Studios utzi eta Digital Legends garapen-enpresa katalanean hasi zen lanean.

40.- *PLANET 51*: Ismael Rayak bideo-jokoaren programazio-taldearen ardura hartu zuen berriro. Raúl Ramos gasteiztarra ere taldean zebilen.

41.- *PLANET 51*: Ekainean, Raúl Ramosek Pyro Studios utzi eta, hiru hilabete geroago, Zinkia Entertainment-en *Hello Pocoyo* haurrentzako bideo-jokoan hasi zen lanean.

2009. URTEA

42.- *PLANET 51*: Bideo-jokoa 2009ko azaroan jarri zuten salgai, Segaren bidez.

-

Iturria: Geuk osatua




Pyro Studios garapen taldeak euskal demoscene kolektiboko kideez elikatu ziren.
Los equipos de desarrollo de Pyro Studios se nutrieron de miembros de la demoscene vasca.



"Commandos 2: Men of Courage" garatzaile euskaldun gehien izan zuten eta arrakasta handiena lortu zuten Pyro Studiosen proiektua izan zen.

'Commandos 2: Men of Courage' fue el éxito de Pyro Studios con mayor número de desarrolladores vascos trabajando en un mismo título.




Jose Raluy bizkaitarrak eta Julio García "Yuio" gasteiztarrak Rebel Act estudio madrildarrean egin zuten topo "Blade. The Edge of Darkness" garatzeko prozesuan.

El vizcaíno José Raluy y el vitoriano Julio García 'Yuio' coincidieron en el estudio madrileño Rebel Act, durante el desarrollo de 'Blade. The Edge of Darkness'.



Pyro Studios eta Dinamic Multimedian lan egindako garatzaileek, beste zenbait euskaldunen artean, sortu zuten Trilobite. Antiguos desarrolladores de Pyro Studios y Dinamic Multimedia, entre ellos varios vascos, fundaron Trilobite .



Amerikako Estatu Batuetaraino, Disney Worldera iritsi zen euskal teknologia. La tecnología vasca llegó hasta Disney World, en Estados Unidos.

CAPÍTULO 7: EL ÉXODO VASCO

A finales de la década de los noventa, Euskadi se había convertido en un punto de referencia para el movimiento de la demoesцена. Como ya se vio en el anterior capítulo, el impulso de encuentros como la Euskal Party generó un cantera de jóvenes con grandes conocimientos tecnológicos. La ausencia de una industria fuerte del videojuego en el País Vasco y la falta de apoyo institucional, generaron un éxodo de talento.

Una peregrinación que inicialmente recaló en Madrid, donde se ubicaban las empresas de videojuegos punteras de la época. Un polo de atracción para aquellos jóvenes vascos con ganas de demostrar sus capacidades. Con los años, la importancia de la capital española fue cediendo a favor de otros puntos de la geografía española. Además, algunos vascos decidieron viajar más allá de las fronteras para dejar su impronta en grandes producciones mundiales del videojuego.

Uno de esos expedicionarios fue el programador Jon Beltrán de Heredia. Nacido en Irún el 23 de noviembre de 1973, vivió su infancia en Tolosa, aunque pasó la adolescencia en Vitoria-Gasteiz. Su primer acercamiento al fascinante mundo de los ordenadores y los videojuegos llegó de la mano de un Olivetti P-6040¹, que tenía el padre arquitecto de un amigo. "Contaba con una pantalla de diez caracteres, tenía cinta de papel como el de una máquina registradora y se programaba en Basic".

A mediados de la década de los ochenta, Beltrán de Heredia pudo hacerse con un Inves Spectrum +2 y, como muchos de su generación, comenzó a programar gracias a las revistas *MicroHobby* y *Micromanía*. El vitoriano recuerda que el acceso a la información era "muy difícil". Aunque existían libros de programación, "eran caros", por lo que las revistas especializadas de la época se convertían en "una de las vías

1. Más detalles sobre Olivetti P-6040 en <http://www.old-computers.com/museum/computer.asp?st=1&c=836> (Consulta: 22 noviembre 2015).

2. "Era prácticamente igual al ZX Spectrum Plus de Sinclair, salvo que tenía la tecla eñe. Para ello, habían quitado el símbolo de la almohadilla y, para programar en código máquina, la almohadilla era imprescindible si se quería meter números hexadecimales". <http://zonadepruebas.org/backup/modules/smartsection/item.php?itemid=905> (Consulta: 22 noviembre 2015).

económicas para adquirir ese conocimiento”. De esta manera, se introdujo en el lenguaje Basic y, más tarde, dio el salto al código máquina.

Cuando Beltrán de Heredia todavía no había cumplido la mayoría de edad, el Grupo SPRI abrió en el Parque de la Florida, en la capital alavesa, un centro IMI³ con acceso a los primeros IBM PC. Falsificó su carné de identidad para poder entrar y aprender cómo se usaban aquellos ordenadores. Después de un tiempo, se compró uno para casa “con lo que tenía ahorrado y la ayuda de mis padres”. Gracias a los conocimientos adquiridos con los 8 bits, el programador comenzó a “destripar” algunos juegos para saber cómo estaban hechos.

“Me acuerdo del ‘Xenon 2 Megablast’ (The Assembly Line/Bitmap Brothers, 1989). Lo desensamble con un *debugger*⁴ que estaba escrito en código máquina. De esta forma aprendí cómo leían el teclado y cómo estaban hechas las rutinas de colisiones”, cuenta el vitoriano. “Otro que destripé, pero no entero, –continúa– fue el ‘Indiana Jones y la última cruzada’ (Lucasfilm Games, 1989). Ese fue más complicado porque no estaba programado en C (lenguaje de programación) ni en Pascal. Años más tarde descubrí que utilizaban el motor SCUMM⁵”.

Después de terminar COU en 1991, Jon Beltrán de Heredia se matriculó en la carrera de Telecomunicaciones (UPV/EHU)⁶. El acceso a la universidad le abrió las puertas a un incipiente Internet. A través de las BBS y la red FidoNET, solía conectarse al grupo ProASM_e, dedicado a la programación en ensamblador; y ‘R34.Demos’, centrada en el mundo de los juegos y la demoescena.

